

BESTELAKO XEDAPENAK

INDUSTRIA, TRANTSIZIO ENERGETIKO ETA JASANGARRITASUNAREN SAILA

344

EBAZPENA, 2024ko abenduaren 4koa, Ingurumen Jasangarritasunaren sailburuordearena, aldatzen eta berrikusten duena Litografía Alavesa SLUri Oyón-Oionen (Araba) sustatzen duen metalak tratatzeko eta gainestaltzeko jarduerarako emandako ingurumen-baimen bateratua.

EGITATEAK

1.– Ingurumeneko sailburuordearen 2008ko martxoaren 18ko hasierako Ebazpenaren bidez, ingurumen-baimen bateratua eman zen Litografía Alavesa SLUK Oion udalerrian (Araba) sustatzen duen metalak tratatzeko eta gainestaltzeko jarduerarako. Baimen hori Kutsaduraren Prebentzio eta Kontrol Integratuari buruzko uztailaren 1eko 16/2002 Legearen esparruan eman zen.

2.– 2009ko uztailaren 31n, Ingurumeneko sailburuordeak ebazpen bat eman zuen, Litografía Alavesa SLUri Oion udalerrian (Araba) sustatzen duen metalak tratatzeko eta gainestaltzeko jarduerarako emandako ingurumen-baimen bateratua aldatzeko eta eraginkor egiteko.

3.– 2010eko ekainaren 3an adierazi zen ez zela aldaketa funtsezkoa Litografía Alavesa SLUK 2012ko maiatzaren 19an jakinarazitakoa –industria-nabea handitzea–, uztailaren 1eko 16/2002 Legean ezarritakoaren arabera.

4.– 2013ko ekainaren 11n adierazi zen ez zela aldaketa funtsezkoa Litografía Alavesa SLUK 2013ko maiatzaren 23an jakinarazitakoa –produktu kimikoen eta industria-latorriaren biltegiak handitzea–, betiere uztailaren 1eko 16/2002 Legean ezarritakoaren arabera.

5.– 2014ko azaroaren 3an adierazi zen ez zela aldaketa funtsezkoa Litografía Alavesa SLUK 2014ko azaroaren 3an jakinarazitakoa –bernizatze-linea bat desmuntatzea, eta bobinen ebaketa-linea eta biltegi berria, bernizatze-linea berria eta inprimagailu-gorputza ezartzea–, betiere ekainaren 11ko 5/2013 Legearen arabera, zeinaren bidez aldatzen baitira Kutsaduraren Prebentzio eta Kontrol Integratuari buruzko uztailaren 1eko 16/2002 Legea eta Hondakinei eta Lurzoru Kutsatuei buruzko uztailaren 28ko 22/2011 Legea. Komunikazio horretan bertan, Litografía Alavesa SLUK muga akustikoak areagotzeko eskatzen zuen.

6.– 2015eko otsailaren 27an adierazi zen ez dela aldaketa funtsezkoa Litografía Alavesa SLUK 2015eko urtarrilaren 21ean eta otsailaren 20an jakinarazitakoa –litografía-linea berria, lehortze-labea eta konposatu organiko lurrunkorren erraustegia instalatzea–, ekainaren 11ko 5/2013 Legean ezarritakoaren arabera.

7.– 2015eko martxoaren 11n adierazi zen ez zela aldaketa funtsezkoa Litografía Alavesa SLUK 2015eko otsailaren 27an jakinarazitakoa –hozteko makinak terrazan birkokatzea–, ekainaren 11ko 5/2013 Legean ezarritakoaren arabera.

8.– 2015eko abenduaren 14an adierazi zen ez dela aldaketa funtsezkoa Litografía Alavesa SLUK 2015eko abenduaren 2an jakinarazitakoa –latorriaren eta produktu kimikoen biltegi berria eraikitzea–, betiere ekainaren 11ko 5/2013 Legean ezarritakoaren arabera.

9.– 2016ko maiatzaren 5ean adierazi zen ez dela aldaketa funtsezkoa Litografía Alavesa SLUK 2016ko maiatzaren 4an jakinarazitakoa –armairu automatikoak instalatzeko modulu bat eraikitzea–, betiere ekainaren 11ko 5/2013 Legean ezarritakoaren arabera.

10.– 2016ko azaroaren 3an Litografía Alavesa SLUK adierazi zuenez, eskura zituen teknika erabilgarri onen (TEO) guztiak ezarri arren, ez zen lortu indarrean zegoen ingurumen-baimen bateratuan jasotako zarata-atalaseak betetzea.

11.– 2016ko azaroaren 7an, Litografía Alavesa SLUK kolektore nagusira egindako ur beltzen eta euri-uren isurketen inguruko dokumentazioa aurkeztu zuen Oiongo Udalean.

12.– 2016ko azaroaren 8an adierazi zen ez zela aldaketa funtsezkoa Litografía Alavesa SLUK 2016ko urriaren 25ean jakinarazitakoa –nabe bat egokitzea, aldagela, komun eta gela osagarri gisa erabiltzeko–, betiere ekainaren 11ko 5/2013 Legean ezarritakoaren arabera.

13.– 2016ko abenduaren 16an adierazi zen ez zela aldaketa funtsezkoa Litografía Alavesa SLUK 2016ko abenduaren 16an jakinarazitakoa –latorri-biltegiaren eta ebaketa-eremuaren arteko komunikazio-korridorea eraikitzea–, betiere ekainaren 11ko 5/2013 Legean ezarritakoaren arabera.

14.– 2017ko urtarrilaren 19an adierazi zen ez zela aldaketa funtsezkoa Litografía Alavesa SLUK 2016ko abenduaren 22an jakinarazitakoa –aldageletako paretak eraistea–, betiere abenduaren 16ko 1/2016 Legegintzako Errege Dekretuak onetsitako Kutsaduraren Prebentzio eta Kontrol Integratuari buruzko Legearen testu bateginean ezarritakoaren arabera.

15.– 2017ko martxoaren 9an adierazi zen ez zela aldaketa funtsezkoa Litografía Alavesa SLUK 2017ko martxoaren 9an jakinarazitakoa –latorri-biltegiaren eta ekoizpen-eremuaren arteko komunikazio-korridore bat eraikitzea–, betiere abenduaren 16ko 1/2016 Legegintzako Errege Dekretuak onetsitako Kutsaduraren Prebentzio eta Kontrol Integratuari buruzko Legearen testu bateginean ezarritakoaren arabera.

16.– 2018ko urtarrilaren 11n adierazi zen ez zela aldaketa funtsezkoa Litografía Alavesa SLUK 2018ko urtarrilaren 8an jakinarazitakoa –latorria ebakitzeko eremuaren eta amaitutako produktuaren biltegiaren arteko banaketa-panela desmuntatzea–, betiere abenduaren 16ko 1/2016 Legegintzako Errege Dekretuak onetsitako Kutsaduraren Prebentzio eta Kontrol Integratuari buruzko Legearen testu bateginean ezarritakoaren arabera.

17.– 2019ko urtarrilaren 16an adierazi zen ez zela aldaketa funtsezkoa pabiloi berri bat eraikitzeari buruz Litografía Alavesa SLUK 2018ko abenduaren 21ean jakinarazitako aldaketa, betiere abenduaren 16ko 1/2016 Legegintzako Errege Dekretuak onetsitako Kutsaduraren Prebentzio eta Kontrol Integratuari buruzko Legearen testu bateginean ezarritakoaren arabera.

18.– 2019ko azaroaren 6an adierazi zen ez zela aldaketa funtsezkoa pabiloi berri bat eraikitzeari loturik Litografía Alavesa SLUK 2018ko abenduaren 21ean jakinarazitako aldaketa, betiere abenduaren 16ko 1/2016 Legegintzako Errege Dekretuak onetsitako Kutsaduraren Prebentzio eta Kontrol Integratuari buruzko Legearen testu bateginean ezarritakoaren arabera.

19.– 2019ko azaroaren 6an adierazi zen ez zela aldaketa funtsezkoa aire konprimatuko instalazioa jartzeko gela bat eraikitzeari loturik Litografía Alavesa SLUK 2019ko urriaren 31n jakinarazitako aldaketa, betiere abenduaren 16ko 1/2016 Legegintzako Errege Dekretuak onetsitako Kutsaduraren Prebentzio eta Kontrol Integratuari buruzko Legearen testu bateginean ezarritakoaren arabera (AAI00085_MNS_2019_001 espediente-zenbakia).

20.– 2019ko urriaren 31n, Litografía Alavesa SLUK aldaketa baten berri eman zuen –Tandem bernizatze-linea berri bat instalatzea–, eta adierazi zuen ez zela aldaketa funtsezkoa (AAI00085_MNS_2019_002 espediente-zenbakia).

21.– 2020ko azaroaren 23an, Litografía Alavesa SLUK aldaketa baten berri eman zuen – litograbaketarako linea berri bat instalatzea–, eta adierazi zuen ez zela aldaketa funtsezkoa (AAI00085_MNS_2020_001 espediente-zenbakia).

22.– 2020ko abenduaren 9an, Europar Batasunaren Aldizkari Ofizialean argitaratu zen Batzordearen 2020/2009 (EB) Betearazpen Erabakia, 2020ko ekainaren 22koa. Haren bidez, teknika erabilgarri onenei (TEO) buruzko ondorioak ezartzen dira, industria-isuriei buruzko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2010/75/EB Zuzentarauak dioenari jarraikiz, gainazalak disolbatzaile organikoekin tratatzeko, barnean harturik egurraren eta zuretik eratorritako produktuen kontserbazioa, produktu kimikoak erabiliz.

23.– 2021eko ekainaren 8an, Litografía Alavesa SLUK aldaketa baten berri eman zuen – lur-muino bat eraistea, langileen sarrera-eremua areagotzeko–, eta adierazi zuen ez zela aldaketa funtsezkoa (AAI00085_MNS_2021_001 espediente-zenbakia).

24.– 2022ko uztailaren 21ean adierazi zen ez zela aldaketa funtsezkoa Litografía Alavesa SLUK 2022ko uztailaren 20an jakinarazitakoa –zamalanetarako eremua estaltzea–, abenduaren 16ko 1/2016 Legegintzako Errege Dekretuak onetsitako Kutsaduraren Prebentzio eta Kontrol Integratuari buruzko Legearen testu bateginean ezarritakoaren arabera (AAI00085_MNS_2022_001 espediente-zenbakia).

25.– 2023ko urtarrilaren 31n, teknika erabilgarri onenak berrikusteko prozeduraren barruan, ingurumen-organo honek aurretiazko txostena eskatu zion Oiongo Udalari, Arabako Errioxako Ur Partzuergoari, Uraren Euskal Agentziari eta Osasun Sailari (AAI00085_REV_2023_001 espediente-zenbakia).

26.– 2023ko otsailaren 3an, Osasun Sailak txosten bat bidali zuen, zeinean adierazten baitzuen beharrezkoa zela ingurumena zaintzeko programari zegokion dokumentazioa berrikustea, emisio atmosferikoen neurketei eta isuritako uraren kalitate-kontrolei loturik, edo, halakorik ezean, industria-urak hondakin arriskutsu gisa kudeatu izanari eta jarduerari loturiko zarataren neurketei buruzko egiaztatgiriak.

27.– 2023ko otsailaren 9an, Arabako Errioxako Ur Partzuergoak txosten bat bidali zuen, zeinean adierazten baitzuen Oiongo Udalak duela gai horretan eskumena. Halaber, jakinarazi zuen partzuergoak egin zuela aurretiazko txosten bat 2003an komunitako urak udal-kolektorean jasotzeari buruz, eta industriako isurketak, berriz, hondakin-kudeatzaile baimendu batera bideratu beharko lirатеkeela.

28.– 2023ko otsailaren 14an, Ingurumen Organoak Litografía Alavesa SLUri eskatu zion berrikus zezala baimena, instalazioaren funtzionamenduaren eta ondorioetan deskribatutako teknika erabilgarri onenen arteko konparazioa bidaltzeko. Txosten hartan eskatzen zion, orobat, atxiki zitzala Osasun Sailak eta Arabako Errioxako Ur Partzuergoak helarazi zizkioten txostenak.

29.– 2023ko otsailaren 27an, Ingurumen Baimen Bateratua berrikuste aldera eskatu zizkioten dokumentazioa aurkeztu zuen Litografía Alavesa SLUK.

30.– 2023ko apirilaren 3an, ingurumen-organoak aurkeztutako agiri bat zuzentzeko eskatu zion Litografía Alavesa SLUri.

31.– 2023ko apirilaren 18an, Litografía Alavesa SLUK egindako errekerimenduaren erantzuna aurkeztu zuen.

32.– 2023ko abenduaren 1ean, Litografía Alavesa SLUk ingurumen-baimen bateratuaren aldaketa funtsezko bat eskatu zuen ijezketa-linea berri bat instalatzeko, zeinak areagotu egiten baitzituen baimenean jasotako lan- eta ekoizpen-txandak. Dokumentazio berean eskaera bat sartu zuen, emisio akustikoen mugak areagotzeko eta baimenaren beste eguneratze txiki batzuk egiteko (AAI00085_MS_2023_001 espediente-zenbakia). Litografía Alavesa SLUk agiri hauek aurkeztu zituen:

- 001. DOK. Administratiboa – Instalazioaren administrazio-datuak.
- 002. DOK. Administratiboa – Eskriturak.
- 003. DOK. Baimen sektorialak – Baimen sektorial historikoak.
- 004. DOK. Memoria Teknikoa – Memoria.
- 005. DOK. Planoak.
- 006. DOK. Memoria Teknikoa – *As built* proiektua.
- 007. DOK. Memoria Teknikoa – Obra amaierako ziurtagiria.
- 008. DOK. Aireari buruzko agiri sektorialak – Emisioen deskribapena eta zenbatespena.
- 009. DOK. Aireari buruzko agiri sektorialak – Foku atmosferikoen kontrolak.
- 017. DOK. Zaratari buruzko agiri sektorialak – Zarata-iturriak.
- 019. DOK. Zaratari buruzko agiri sektorialak – Zarata kontrolatzea.
- 050. DOK. Ingurumena kudeatzeko eta ikuskatzeko sistema komunitarioa, ISO14001 ziurtagiria.

33.– 2024ko urtarrilaren 18an, ingurumen-organo honi atxikitako zerbitzu teknikoek ikuskapen-bisita bat egin zuten, zeinaren ondotik AAI00085/6S akta idatzi baitzuten. Bertan, besteak beste, litografia-foku batzuen baja adierazten da.

34.– Aurkeztutako agiriak nahikoak zirela egiaztatu ondoren, Ingurumenaren Kalitatearen eta Ekonomia Zirkularraren zuzendariaren 2024ko martxoaren 20ko iragarkiaren bidez, jendaurrean jarri ziren 30 egun balioduneko aldi bakarrean Litografía Alavesa SLUk aurkeztutako ingurumen-baimen bateratuaren aldaketa funtsezkoaren gaineko proiektua eta baimenaren berrikuspena izapidetzeko teknika erabilgarri onenen konparazio-dokumentazioa. Iragarki hura Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu zen 2024ko apirilaren 8an, eta hari zegokion dokumentazioa, berriz, Eusko Jaurlaritzaren egoitza elektronikoko iragarki-taula elektronikotan argitaratu zen 2024ko apirilaren 9an.

35.– 2024ko apirilaren 9an, teknika erabilgarri onenak berrikusteko eta ingurumen-baimen bateratuaren aldaketa funtsezkoa egiteko prozedurabakarkomunaren esparruan, ingurumen-organo honek txosten bat eskatu zien Oiongo Udalari eta Arabako Errioxako Ur Partzuergoari, eta 2024ko apirilaren 18an, Osasun Sailari.

36.– 2024ko maiatzaren 16an, Osasun Sailak txosten bat bidali zuen, eta jakinarazi zuen ez dagoela aplikatzeko araudi tekniko-sanitariorik aztergai zuen proiektuaren irismenean.

37.– Epea igaro ondotik, ez da jaso alegaziorik jendaurreko informazio-aldian, ez eta organismo eskudunen txostenik ere, aipatutakoaz aparte.

38.– 2024ko azaroaren 11n, espedientea Litografía Alavesa SLUren esku utzi zen, eta 10 eguneko entzunaldi-izapidea eman zen. Aurreikusitako epe hori iraganik, ez da jaso alegaziorik.

39.– 2024ko azaroaren 28an, Litografía Alavesa SLUK usainak kudeatzeko plana eta orga jasotzaileen mantentzailetik olioak erretiratzeari loturiko ziurtagiria aurkeztu zituen.

ZUZENBIDEKO OINARRIAK

1.– 2013ko urriaren 19an, Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen 815/2013 Errege Dekretua, urriaren 18koa, Industriako Emisioen Erregelamendua onartu eta Kutsaduraren Prebentzio eta Kontrol Integratuari buruzko uztailaren 1eko 16/2002 Legea garatzen duena.

2.– 2016ko abenduaren 31n, Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen 1/2016 Legegintzako Errege Dekretua, abenduaren 16koa, Kutsaduraren Prebentzio eta Kontrol Integratuaren Legearen testu bategina onesten duena.

3.– 2019ko urriaren 15ean, urriaren 10eko TEC/1023/2019 Agindua argitaratu zen Estatuko Aldizkari Ofizialean, zeinean ezartzen baita noiztik aurrera eskatu ahal izango zaien nahitaezko finantza-bermea Ingurumen Erantzukizunari buruzko urriaren 23ko 26/2007 Legearen III. eranskinean jasotako jardueri –ekainaren 22ko ARM/1783/2011 Aginduaren bidez 3. lehen tasun-mailakotzat sailkatuak–.

4.– 2020ko urtarrilaren 27an argitaratu zen urtarrilaren 21eko 4/2020 Dekretua, zeinak indargabetu egiten baitzuen irailaren 25eko 183/2012 Dekretua (ingurumeneko administrazio-prozeduretan zerbitzu elektronikoen erabilera arautzeko eta ingurumenean eragina duten jardueren Euskal Autonomia Erkidegoko erregistroa sortzeko eta arautzeko dena), eta, beraz, aldatu egin behar dira ingurumen-baimen bateratuko zenbait apartatu.

5.– 2020ko irailaren 23an, Litografía Alavesa SLUK adierazi zuen, 1042/2017 Errege Dekretuaren aplikagarritasunari dagokionez (1042/2017 Errege Dekretua, abenduaren 22koa, errekontza-instalazio ertainetatik datozen zenbait agente kutsatzailek atmosferara egiten dituzten emisioak mugatzeari buruzkoa eta airearen kalitateari eta atmosferaren babesari buruzko azaroaren 15eko 34/2007 Legearen IV. eranskina eguneratzen duena), arauaren 2.3 artikuluko salbuespen-araubidean sartzen direla haren errekontza-instalazio guztiak, 1-50 MW arteko potentzia termiko nominalekoak.

6.– 2021eko abenduaren 31n, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu zen Euskadiko Ingurumen Administrazioari buruzko abenduaren 9ko 10/2021 Legea.

7.– 2022ko apirilaren 9an, Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen Hondakinak eta lurzoru kutsatuak arautu eta ekonomia zirkularra bultzatzeko apirilaren 8ko 7/2022 Legea.

8.– Kutsaduraren Prebentzio eta Kontrol Integratuari buruzko Legearen testu bategina onesten duen abenduaren 16ko 1/2016 Legegintzako Errege Dekretuak 1. artikuluan ebazten duenaren arabera, lege horren xedea da atmosferaren, uraren eta lurzoruaren kutsadura saihestea edo, hori ezinezkoa denean, kutsadura hori gutxitu eta kontrolatzea, eta, hura lortzeko, ingurumen osoaren babes-maila handia helburutzat harturik, kutsadura prebenitu eta kontrolatzeko sistema integratu bat ezartzea.

9.– Abenduaren 16ko 1/2016 Legegintzako Errege Dekretuak onartutako Kutsaduraren Prebentzio eta Kontrol Integratuari buruzko Legearen testu bateginaren 9. artikulua xedatzen duenaren arabera, ingurumen-baimen bateratua behar da haren 1. eranskinean aipatzen diren jardueretako edozeinetan aritzen diren instalazioak ustiatzeko. Abenduaren 16ko 1/2016

Legegintzako Errege Dekretuak onartutako Kutsaduraren prebentzio eta kontrol integratuari buruzko Legearen testu bateginaren 11. artikuluan xedatuta dagoenaren arabera, baimen honen oinarriko helburua baldintzak ezartzea da, araua berau aplikatu daitekeen instalazio guztietan betetzen dela bermatzeko; horretarako, baimena ematen parte hartuko duten administrazio publikoen artean koordinatuta egongo den prozedura bat erabili nahi da, izapideak errazteko eta partikularrek ordaindu beharreko kargak gutxitzeko. Era berean, indarrean dagoen legerian jasotako ingurumeneko administrazio-baimen guztiak egintza administratibo bakar batean bildu nahi dira. Litografía Alavesa SLUren kasuan, baimen hauek behar ditu: hondakin arriskutsuak eta hondakin arriskugabeak kudeatzeko baimena; saneamendu-sarera isurketak egiteko baimena; atmosferara emisioak egiteko baimena, eta, ingurumen-izaerako beste zehaztapen batzuen artean, lurzorua kutsadura prebenitu eta zuzentzeari dagozkionak. Gainera, espedientean beste administrazio eta organismo eskudun batzuek ere parte hartu dutela egiaztatu da, aginduzko txostenak igorri baitira.

10.– Industriako Isurketen Erregelamendua onartu eta Kutsaduraren Prebentzio eta Kontrol Integratuari buruzko uztailaren 1eko 16/2002 Legea garatzen duen urriaren 18ko 815/2013 Errege Dekretuak 6. artikuluan xedatuarekin bat eginez, baimen honetan sartzen dira ekoizpen-elementu eta -linea guztiak, zehazki, abenduaren 16ko 1/2016 Legegintzako Errege Dekretuak onartutako Kutsaduraren Prebentzio eta Kontrol Integratuari buruzko Legearen testu bateginaren 1. eranskinean aipatzen ez diren arren, lege hori aplikatu beharreko esparruko jardueraren instalazioetan gauzatzen direnak eta jarduera horrekin zerikusi teknikoa dutenak.

11.– Litografía Alavesa SLUk 2019ko urriaren 31n, 2020ko azaroaren 23an eta 2021eko ekainaren 8an aurkeztutako aldaketei dagokienez, adierazi behar da hauxe xedatzen dela instalazioa aldatzeko tituluari buruzko abenduaren 16ko 1/2016 Legegintzako Errege Dekretuaren 10. artikuluan:

«1.– Ingurumen-baimen bateratua behar duten instalazioen aldaketak funtsezkoak edo ez-funtsezkoak izan daitezke.

2.– Instalazio baten aldaketa ez-funtsezkoa egin nahi duen titularrak ingurumen-baimen bateratua emateko organo eskudunari hala jakinarazi beharko dio; titularrak behar bezala arrazoitu beharko du zergatik uste duen aldaketa ez dela funtsezkoa. Jakinarazpen horrekin batera, adierazitako arrazoiak justifikatzen dituzten dokumentuak aurkeztu beharko dira.

Ingurumen-baimen bateratua eman behar duen organo eskudunak ez badu kontrakorik esaten hilabeteko epean, titularrak aldaketa gauzatu ahal du. Instalazioaren aldaketa ez-funtsezkoaren ondorioz ingurumen-baimen bateratua aldatu egin behar bada, kasuan kasuko autonomia-erkidegoak argitara eman beharko du bere aldizkari ofizialean.

12.– 10. artikuluko 4. apartatuak berak 815/2013 Errege Dekretuaren 14. artikuluan jasotako erregelamendu-garapena aipatzen du (815/2013 Errege Dekretua, urriaren 18koa, Industriako Isurpenen Erregelamendua onartu eta Kutsaduraren Prebentzio eta Kontrol Integratuari buruzko uztailaren 1eko 16/2002 Legea garatzen duena), aldaketa bat funtsezkoa edo ez-funtsezkoa den justifikatzeko kontuan hartu beharreko irizpideak zehazteko.

13.– Kutsaduraren Prebentzio eta Kontrol Integratuko Zerbitzuari atxikitako zerbitzu teknikoek instalazioaren titularrak 2019ko urriaren 31n, 2020ko azaroaren 23an eta 2021eko ekainaren 8an bidalitako eskabideak eta dokumentazioa aztertu ondoren, eta aipatutako arau-irizpideak kontuan hartuta, jakinarazitako aldaketa-proiektuak ez-funtsezkotzat jo ziren.

14.– Litografía Alavesa SLUri emandako ingurumen-baimen bateratuan, zehaztuta daude zaraten arloan bete beharreko muga-balioak eta horiek kontrolatzeko prozedura, abenduaren 16ko 1/2016 Legegintzako Errege Dekretuak onesten duen Kutsaduraren Prebentzio eta Kontrol Integratuari buruzko Legearen 22. artikuluan xedatutakoa betez.

15.– Bestalde, ingurumen-baimen bateratuak xedatzen duenez, neurri babesle eta zuzentzaileak eta ingurumena zaintzeko programa aldatu ahal izango dira araudi berria indarrean jartzean, betiere esku hartzen duten sistemen egiturari eta funtzionamenduari buruzko ezagutza berri esanguratsuetara egokitu beharrak hala egitea aholkatzen badu, edo sustatzaileak horrela eskatzen badu ingurumena zaintzeko programak lortutako emaitzak ikusita.

16.– Litografía Alavesa SLUK ingurumen-organoari jakinarazi dio, zarataren arloan ezarritako muga-balioak betetzeko eskura dituen neurriak ezarri baditu ere, ez dela lortzen balio horiek betetzea.

17.– Halere, Litografía Alavesa SLUri dagokion ingurumen-baimen bateratuaren espedienteari buruz organo honetan jasota dagoen dokumentazioan, jardueran egindako hainbat neurketa daude, eta neurketok Euskal Autonomia Erkidegoko Hots-kutsadurari buruzko urriaren 16ko 213/2012 Dekretuan finkatutako balioak betetzen direla egiaztatzen dute.

18.– Kutsaduraren Prebentzio eta Kontrol Integratuari buruzko Legearen testu bateginaren 7. artikuluan xedatuta kontuan hartuta (abenduarien 16ko 1/2016 Legegintzako Errege Dekretuak onetsia), emisioen muga-balioak zehazteko, aldatu egin behar dira ingurumen-baimen bateratuko B.1.5 eta C.4 apartatuak, hori guztia dagokion udal-agintaritzak bere garaian egiten duen zonakatzekak dakartzan ondorioak alde batera utzi gabe.

19.– Erabilgarri dauden teknikarik onenak berrikusteari dagokionez, abenduaren 16ko 1/2016 Errege Lege Dekretuaren bidez onetsitako Kutsaduraren Prebentzio eta Kontrol Integratuei buruzko Legearen testu bateginaren 26. artikuluan ezarrita dago zer baldintza behar diren baimena berrikusteko. Horri jarraituz, lau urteko epean, instalazioaren jarduera nagusiari dagozkion teknika erabilgarri onenen (TEO) inguruko ondorioak argitaratzen direnetik aurrera, organo eskudunak bermatuko du instalazioaren baimenaren baldintza guztiak berrikusiko direla eta, beharrezkoa bada, egokituko direla, bai eta instalazioak erreferentziako TEO agirien ondorio aplikagarriak betetzen dituela ere.

20.– Gainera, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 72. artikuluan, izapideen kontzentrazioari buruzkoan, xedatutakoa aplikatuko da: «Administrazioa sinplifikatzeko printzipioarekin bat, egintza bakar batean erabakiko dira izaeragatik batera bultzatu daitezkeen eta nahitaez bata bestearen ondoren bete beharrekoak ez diren izapide guztiak».

21.– Bestalde, urriaren 18ko 815/2013 Errege Dekretuaren 14. artikuluan xedatutakoaren arabera, funtsezkotzat hartu beharrekoa da Litografía Alavesa SLUK Oion udalerrian metalak tratatzeko eta gainestaltzeko jarduerarako dituen instalazioei buruz 2023ko abenduaren 1ean aurkeztutako aldaketa.

22.– Azkenik, instalazioan jatorria izan lezaketen substantzia kutsagarrien emisioen eta isurien muga-balioak zehazteko, bai eta instalazioaren beste ustiapen-baldintza batzuk ere, betiere ingurumena bere osotasunean ahalik eta gehien babesteko, ebazpen hau egitean kontuan izan dira teknika erabilgarri onenak, eta aintzakotzat hartu dira, orobat, aplikatzekoa den sektoreko legeriak zehaztutako neurriak eta baldintzak. Zehazki kontuan hartu da Europako Batzordearen Best Available Techniques (BAT) Reference Document on Surface Treatment Using Organic Solvents including Preservation of Wood and Wood Products with Chemicals (2020) agiriaren edukia.

23.– Goian adierazitako izapideak amaitu ondotik, bete da urriaren 18ko 815/2013 Legearen 15.8 artikuluan jasotzen den entzunaldi-izapidea eta ebazpen hau egin da.

24.– Aintzat hartu da organo honek eskumena duela ingurumen-baimen bateratu hau emateko, bat etorriz Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen otsailaren 23ko 68/2021 Dekretuan xedatutakoarekin.

25.– Honako hauek ikusi dira: Euskadiko Ingurumen Administrazioaren abenduaren 9ko 10/2021 Legea; 1/2016 Legegintzako Errege Dekretua, abenduaren 16koa, Kutsaduraren Prebentzio eta Kontrol Integratuari buruzko Legearen testu bategina onartzen duena; 815/2013 Errege Dekretua, urriaren 18koa, Industriako Isurpenen Erregelamendua onartu eta Kutsaduraren Prebentzio eta Kontrol Integratuari buruzko uztailaren 1eko 16/2002 Legea garatzen duena; 21/2013 Legea, abenduaren 9koa, Ingurumen-ebaluazioari buruzkoa; 68/2021 Dekretua, otsailaren 23koa, Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen dituen; 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena; eta oro har aplikatzekoak diren gainerako arauak.

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– instalazioaren aldaketa ez-funtsezkotzat hartzea Litografía Alavesa SLUk Oionen (Araba) sustatzen duen metalak tratatzeko eta gainestaltzeko jardueraren inguruan 2019ko urriaren 31n, 2020ko azaroaren 23an eta 2021eko ekainaren 8an jakinarazitako aldaketa-proiektuak.

Bigarrena.– berrikustea Litografía Alavesa SLUk Oionen sustatzen duen metalak tratatzeko eta gainestaltzeko jarduerarako emandako ingurumen-baimen bateratua, Batzordearen 2020ko ekainaren 22ko 2020/2009 (EB) Betearazpen Erabakian jasotako baldintzetan; hori horrela, ebazpen honen eranskinetan jasotakoak izango dira baimenean jasotako neurri teknikoak eta baldintzak.

Hirugarrena.– ingurumen-baimen bateratua aldatzea eta baldintzak eta eskakizunak ezartzea Litografía Alavesa SLUk Oion udalerrian (Araba) sustatzen duen metalak tratatzeko eta gainestaltzeko jarduera ustiatzeari eta eteteari dagokienez, ebazpen honen eranskinetan ezarritakoaren arabera.

Laugarrena.– planteatutako aldaketaren ondorioz eraikuntzako eta eraispenerako hondakinak sortzen badira, Eraikuntza- eta eraispenerako hondakinen ekoizpena eta kudeaketa arautzeko ekainaren 26ko 112/2012 Dekretuan xedatutakoa hartuko da kontuan.

Bosgarrena.– instalazioa baimenduta dagoen lurzatiaren barruan lurrak mugitzea dakarren aldaketa bat aurreikusiz gero, sustatzaileak baldintza hauek bete beharko ditu:

a) Lurzoria kutsatzea saihestu eta kutsatutakoa garbitzeko ekainaren 25eko 4/2015 Legearen 25. artikuluko 1.c) apartatuari jarraikiz, induskatu beharreko materialak (lurrak, eraiste-hondakinak eta abar) karakterizatu egin beharko ditu jardueraren sustatzaileak, ekintza kutsatzaileen ondorioz erasan zaien ala ez egiaztatzearen, eta, karakterizazio horren emaitzen arabera, horiek kudeatzeko modu egokiena zehaztearen.

b) Indusketa horrek hondeatutako materialen 500 m³ gainditzen dituenean, sustatzaileak gaikako hondeaketa-plan bat aurkeztu beharko du. Planak 13. artikuluan adierazitako edukia jaso beharko du, eta ingurumen-organok onartu behar du plana, betetzen hasi aurretik.

c) Hondeatu beharrekoa 500 m³ baino gutxiago bada, aldaketaren jakinarazpenean informazio hau eman beharko da: non dagoen kokatuta, zenbat hondeatu behar den, aurreikusitako hasiera-eguna, kontratista, jarraipenaren eta kudeaketaren ardura izango duen entitatea.

d) Aurreko kasu horietan guztietan, induskatzen amaitutakoan, induskatutako materialak zuzen berrerabili edo kudeatu direla ziurtatzen duen txosten bat aurkeztu beharko da ingurumen-organoan, behar bezala karakterizatu aurretik.

Seigarrena.– instalazioaren titularrak jarduera gauzatu ahal izango du, hargatik eragotzi gabe legez eska daitezkeen gainerako baimenak lortzea edo legez eska daitezkeen erantzukizunpeko adierazpenak edo jakinarazpen sektorialak bidaltzea.

Zazpigarrena.– instalazioetan aldaketak egin ahal izateko, aldez aurretik honako helbide elektronikoa honetan eskuragarri dagoen inprimakia bete beharko da:

http://www.euskadi.eus/contenidos/serv_proc_autorizacion/p_autho_20183895085814/procedures/proc_20183895329689/es_def/adjuntos/Formulario_modificaciones.doc

Organo honen onespena ere eskatu beharko da, abenduaren 16ko 1/2016 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartutako Kutsaduraren Prebentzio eta Kontrol Integratuaren Legearen testu bateginaren 10. artikuluan xedatutakoa betetzeko.

Industriako Isurketen Erregelamendua onesten eta Kutsaduraren Prebentzio eta Kontrol Integratuari buruzko uztailaren 1eko 16/2002 Legea garatzen duen urriaren 18ko 815/2013 Errege Dekretuaren 14.1 artikulua ezartzen ditu aldaketa funtsezkotzat jotzeko irizpideak.

Nolanahi ere, bat etorri aipatutako urriaren 18ko 815/2013 Errege Dekretuaren 14.2 artikuluan zehaztutakoarekin, irizpide horiek orientagarriak dira, eta ingurumen-organoak kalifikatuko du eskatutako aldaketa, funtsezkotzat edo ez-funtsezkotzat jota, bat etorri Kutsaduraren Prebentzio eta Kontrol Integratuaren Legearen testu bategina onartzen duen abenduaren 16ko 1/2016 Legegintzako Errege Dekretuaren 10. artikuluan ezarritako irizpideekin.

Era berean, proiektua aldatzen den kasuetan, aplikatzekoa izango da Ingurumen-ebaluazioari buruzko abenduaren 9ko 21/2013 Legearen 7.1.c) eta 7.2.c) artikuluetan xedatutakoa.

Baldin eta aldaketak lurzoru berria okupatzea aurreikusten badu eta aipatutako lurzoruak lurzoruak kutsa dezaketen jarduerak edo instalazioak baditu edo izan baditu, aldaketa egikaritu aurretik, hartu beharreko kokalekuaren lurzoru-kalitatearen deklarazioa eduki beharko da, Lurzorua Ez Kutsatzeko eta Kutsatutakoa Garbitzeko ekainaren 25eko 4/2015 Legean ezarritakoari jarraikiz.

Zortzigarrena.– babes- eta zuzenketa-neurriak eta ingurumena zaintzeko programa aldatzeko aukera egongo da, bai eta neurtu behar diren parametroak, neurketen maiztasuna eta parametroen mugak aldatzeko ere, hala komeni bada araudi berriak indarrean jartzen direlako edo inplikaturako sistemen egitura eta funtzionamenduari buruzko ezagutza esanguratsu berrietara egokitzeko beharrik. Era berean, babes- eta zuzenketa-neurriak eta ingurumena zaintzeko programa aldatzeko aukera egongo da, jardueraren sustatzaileak hala eskatuta edo ofizioz, ingurumena zaintzeko programan lortutako emaitzetan oinarrituta.

Bederatzigarrena.– ingurumen-baimen bateratuaren berrikuspena ofizioz egingo da kasu hauetan:

a) Instalazioak eragindako kutsaduraren ondorioz ezarritako isurpenen edo emisioen mugako balioak berrikustea edo berriak hartzea komeni denean.

b) Emisioak nabarmen murriztu daitezkeenean, teknika erabilgarri onenetan egindako aldaketa handien ondorioz gehiegizko kosturik izan gabe.

c) Prozesuaren edo jardueraren funtzionamendu-segurtasuna dela eta beste teknika batzuk erabili behar badira.

d) Arroko organismoak, urei buruzko legedian xedatutakoaren arabera, uste badu ingurumen-baimen bateratua berrikustea edo aldatzea justifikatzen duten inguruabarrak daudela, Estatuko Administrazio Orokorrak kudeaturiko arroetako jabari publiko hidraulikora egindako isuriei dagokienez. Kasu horretan, arroko organismoak, txosten lotesle bidez, organo eskudunera joko du ingurumen-baimen bateratua eman dezan, gehienez ere hogeit hamar eguneko epean hasteko aldaketa-prozesua.

e) Instalazioari aplikagarri zaion sektoreko legediak hala eskatzen badu, edo abenduaren 16ko 1/2016 Legegintzako Errege Dekretuak onetsitako Kutsaduraren Prebentzio eta Kontrol Integratuaren Legearen testu bateginaren 22.3 artikuluari jarraikiz, ingurumen-kalitateko arau berriak edo berrikusiak betetzea beharrezkoa bada.

f) Aplikatu beharreko araudi berria indarrean jartzen bada.

g) Ingurunearen egitura eta funtzionamenduari buruzko ezagutza esanguratsu berrietara egokitzeko beharra ikusten denean, bereziki, inplikaturako sistemen hauskortasuna areagotzen dela antzematen bada.

h) Ingurumena zaintzeko programan jasotako emaitzen edo bestelako behaketen arabera, ingurumen-inpakturako ezarritako babes-, zuzenketa- eta konpentsazio-neurriak akastunak direla egiaztatzen bada.

i) Abenduaren 16ko 1/2016 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartutako Kutsaduraren Prebentzio eta Kontrol Integratuaren Legearen testu bateginaren 26. artikuluko 1., 2. eta 3. apartatuetan ezarritakoaren arabera analisi eginda, aldatu egin behar dela ondorioztatzen bada.

Ingurumen-baimen bateratua berrikustek ez dakar kalte-ordaina jasotzeko eskubidea, hala baitago ezarrita abenduaren 16ko 1/2016 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartutako Kutsaduraren Prebentzio eta Kontrol Integratuari buruzko Legearen testu bateginaren 26.5 artikuluan.

Hamargarrena.– baimen honek balioa galduko du kausa hauek gertatzen direnean:

Litografía Alavesa SLU enpresaren nortasun juridikoa bukatzea, indarrean dagoen araudian ezarritako kasuetan.

Hamaikagarrena: abenduaren 16ko 1/2016 Legegintzako Errege Dekretuak onartutako Kutsaduraren Prebentzio eta Kontrol Integratuari buruzko Legearen testu bateginaren 5.d) artikuluan xedatutakoari jarraikiz, metalak tratatzeko eta gainestaltzeko jarduerari dagokionez, zeina ebazpen honen xede baita, gerta litekeen titulartasun-aldaketa oro jakinarazi beharko dio Litografía Alavesa SLUK Ingurumen Jasangarritasunaren Sailburuordetzari, azken horrek onar dezan.

Hamabigarrena: Administrazioarekiko harremanez arduratuko den goi-mailako tituludunaren gainean Ingurumen Jasangarritasuneko Sailburuordetzari eman dizkion datuetan aldaketarik balego, Litografía Alavesa SLUK aldaketa horien berri emango du.

Hamahirugarrena: ingurumen-baimen bateratu honetan ezarritako baldintzak ez betetzea arau-hauste astun edo oso astun gisa tipifikatuta dago Kutsaduraren Prebentzio eta Kontrol Integratuaren Legearen testu bateginaren 31. artikuluari jarraituz (abenduaren 16ko 1/2016 Legegintzako Errege Dekretuak onartu zuen testu bategina), eta lege horren 32. artikuluan jasotako zigorrak ezartzea ekar dezake.

Hamalagarrena: ebazpen hau Litografia Alavesa SLUri jakinaraztea.

Hamabosgarrena: ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzeko agintzea.

Hamaseigarrena: ebazpen honen edukia Oiongoko Udalari, Arabako Errioxako Ur Partzuergoari eta Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailari jakinaraztea, jakinaren gainean egon daitezen eta behar diren ondoreak izan ditzan, hau da, beste lizentzia, baimen, erantzunkizupeko adierazpen edo komunikazio batzuk lortu ahal izatea.

ERREKURTSOAK

Egintza honek ez du administrazio-bidea amaitzen, eta, beraz, gora jotzeko errekurtsoa jarri ahalko da beronen aurka, Industria, Trantsizio Energetiko eta Jasangarritasuneko sailburuaren aurrean, jakinarazpena egin eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita hilabeteko epean, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 121. eta 122. artikuluetan xedatutakoarekin bat.

Vitoria-Gasteiz, 2024ko abenduaren 4a.

Ingurumen Jasangarritasunaren sailburuordea,
JOSU BILBAO BEGOÑA.

JARDUERA DESKRIBATZEKO ERANSKINA

ATALA: JARDUERA – BALDINTZA PARTIKULARRAK

JARDUERAREN DESKRIBAPENA

Litografía Alavesa SLUren egoitza soziala Oionen dago (Araba), Santa Lucía kaleko 27an.

Hau da zentroari esleitutako NIMA kodea: 0100000489.

Jarduera hori abenduaren 16ko 1/2016 Legegintzako Errege Dekretuak onetsitako Kutsaduraren Prebentzio eta Kontrol Integratuari buruzko Legearen 1. eranskinean jasota dago. Hain zuzen ere, 10.1 kategorian, «Disolbatzaile organikoak erabiliz material, objektu edo produktuen gainazalak tratatzeko instalazioak, bereziki, distira emateko, estanpatzeko, estaltzeko eta koipegabetzeko, iragazgaizteko, itsasteko, lakatzeko, garbitzeko edo bustitzeko, orduko 150 kg-tik edo urteko 200 tonatik gora disolbatzaile kontsumitzeko gaitasunarekin».

Lantegia 43.760,45 m²-ko lursail baten barruan dago; horietatik 19.473 m² eraikita daude eta beste 20.187 m², berriz, urbanizatuta hormigoizko zolatarekin.

Litografía Alavesa SLUn garatzen den jarduera, funtsean, plastikoa, esmalteak, bernizak eta tintak askotariko euskarri metalikoetan aplikatzea da, latorrizko xafletan batez ere. Jarraian, ekoizpen-prozesua zehaztuko da.

Ekoizpen-prozesua.

Materiala bobinetan edo xafletan moztuta iristen da lantegira. Bobinak ijezketa-lana behar baldin badu, ijezketa izango da bobinari egin beharreko lehenbiziko prozesua, ebaki aurretik.

Ijezketa.

Prozesu horretan, PET (polietilenoazko tereftalatoa) plastikozko geruza bat aplikatzen da altzairuzko bobina baten gainazalean, ijezketa-metodo baten bidez. Prozesu horren ondorioz, altzairuzko bobinak arraioetatik igaro behar du, eta, beroa indukzio-labeen eta presio kontrolatuaren bidez aplikatuta, PET plastikoa altzairuaren gainazalari atxiki behar zaio. Azken emaitza gisa, altzairuzko bobina PET plastikozko geruza batekin estalita lortzen da, eta horrek zenbait propietate eskaintzen ditu, hala nola korrosioarekiko erresistentzia, estetika hobea edo marraketetatik babestea, aplikazio-baldintza espezifikoaren arabera.

Ebaketa.

Bobinek jasotzen duten hurrengo prozesua ebaketa izango da. Ijeztu ez diren bobinen kasuan, hori izango da materialak jasoko duen lehen prozesua.

Altzairuzko bobinak ebakitzea prozesu industrial bat da, eta altzairuzko bobina bat neurri espezifiko xafletan ebakitzen da. Bezeroak eskatzen ditu neurri horiek, ondoren beste aplikazio batzuetan prozesatzeko.

Hauetara dira ebaketa-lineak:

- LITTELL ebaketa-linea 1.
- HENGLI ebaketa-linea 1.

Bernizatzea.

Materiala xaflatan ebakita iristen bada, bernizatzea izango da aplikatuko zaion lehenbiziko prozesua. Ebaki diren eta alde zurretik ijertu ez diren bobinak ere bernizatu egingo dira.

Bernizatzeko-prozesuan, orriak arraboletatik igarotzen dira, eta esmalte-geruza bat edo lodiera egokiko berniz-geruza bat aplikatzen zaie. Ondoren, bernizatutako orriak lehortzeko labe batetik edo bero-tunel jarraitu batetik igarotzen dira, eta, hala, erretxinak polimerizatzea lortzen da.

Litografía Alavesa SLUn hiru bernizagailu sinple eta bi tandem daude. Bernizatzeko makina sinpleek arrabol bat dute, materialari produktua aplikatzeko. Era berean, labe bat ere badute. Beraz, laminak alde batetik bakarrik jaso dezake prozesua. Hala ere, tandemak gai dira bi aldeei dagokien produktua prozesu berean aplikatzeko; izan ere, tandemak lineako bi bernizagailu sinple dira, eta horien artean dago orri bira ematen dien noria bat.

Berniza aplikatu ondoren, orriak produktu bukatuen biltegira joan daitezke, baldin eta ez badute behar litografiarik. Litografiarik behar ez izatekotan, ebakitako bobinak, alde zurretik ijertuta, produktu bukatuen biltegira ere joan daitezke.

Hauek dira bernizatzeko-lineak:

– Tandem 1-2 (linea bikoitza).

– Bernizatzeko-linea bikoitza (Tandem): Mailänder + lehortze-labea + orri-iraulgailua linean + Mailänder + lehortze-labea.

– Tandem 3-4 (linea bikoitza).

– Bernizatzeko-linea bikoitza (Tandem): Mailänder + lehortze-labea + orri-iraulgailua linean + Mailänder + lehortze-labea.

– B3 (lehen M3).

– Mailänder bernizatzeko-linea + lehortze-labea.

– B4 (lehen M4).

– Mailänder bernizatzeko-linea + lehortze-labea.

– B5 (lehen M5).

– Mailänder bernizatzeko-linea + lehortze-labea.

Linea guztiek dituzte hartz bikoitzeko sistema —kontrako aurpegia ez dela kutsatzen ziurtatzeko—, detekzio-sistema bikoitza, *antifleking*-sistema, uhalen mahai bidezko doikuntza-sistema, kateak bultzagailuekin, erreserben paralelismoa detektatzeko sistema, lehortze-labeetako sarrerak eta irteerak eta orrien kolpe aurkako sistema.

I+Gko fasean, ikusmen artifizialeko sistema, edozein ezpurutasun, poro edo berniz-akats detektatzeko.

Berniza aplikatu ondoren, orriak produktu bukatuen biltegira joan daitezke, baldin eta ez badute behar litografiarik. Litografiarik behar ez izatekotan, ebakitako bobinak, alde zurretik ijertuta, produktu bukatuen biltegira ere joan daitezke.

Hala ere, produktua litografiatu behar bada, litografia izango da hurrengo prozesua.

Litografia.

Prozesu horretan, altzairuzko xafla zenbait inprimaketa-gorputzetatik igarotzen da, eta, inprimaketa-gorputz bakoitzean, diseinu jakin bat duen tinta espezifiko bat aplikatzen da. Gorputz bakoitza inprimatuta, kalitate eta iraunkortasun handiko inpresioak lortzen dira latorri gainean, eta, besteak beste, edarien latetan edo elikagaien ontzietan erabiltzen da. Metodo horrek erreproduzio zehatza eta erresistentea bermatzen du, aproposa bilgarri iraunkor eta erakargarria behar duten aplikazioetarako.

Litografia behar duten produktueterako, bi motatako ekoizpen-lineak daude: UV lehorketa eta lehorketa konbentzionala. Litografia-makina guztiak offset motakoak dira; termino horren bidez izendatutako metodoan, litografia zilindro batetik bestera transferitzen da latorriraino.

Lehortze ultramoreko lineetan latorri-xaflak zenbait gorputzetatik igarotzen dira, eta bakoitzean kolore batez bustitzen dira. Lehorketa kimikoki egiten da, argi ultramorearekiko esposizio labur baten bidez. Horrek zenbait monomero elkartzen ditu, kate handiagoa lortzeko. Hala ere, lehortze-linea konbentzionaletan latorri-xaflak lehorketa-labe batean lehortzen dira.

Ekoizpen-linea horietako gehienek arrabol bat dute, eta han aplikatzen zaie akabera-berniza litografiaren ondoren. Berniz horrek litografiatzean aplikatutako tintak babesten ditu. Litografia-lineak ez baldin badauka akabera aplikatzeko aukerarik, latorri-xaflak bernizatze-lineetara itzuli beharko dira, akabera aplika dakien.

Hauek dira litografiatze-lineak:

– SPRINT.

– SPRINT (4 kolorekoa). 4 koloreko Sprinta, lehorketa konbentzionalerako tintekin + Mailänder bernizatze-lineak eta lehortze-labea, tintak lehortzeko *wet on wet* sistema eta akabera-berniza.

– M2

– METALSTAR 2, UV lehorketako 7 tintarekin + Mailänder bernizatze-linea eta lehortze-labea, tintak lehortzeko *wet on wet* sistema eta akabera-berniza.

– M3.

– METALSTAR 3, 6 kolorekoa, UV lehorketako tintekin.

– M4.

– METALSTAR 3, 6 kolorekoa. Lehorketa konbentzionalerako tintekin + Mailänder bernizatze-lineak eta lehortze-labea, tintak lehortzeko *wet on wet* sistema eta akabera-berniza.

Inprimagailu guztiek AVTren ikuspen artifizialeko online-sistema dute.

Aurreinprimaketa.

Litografiaren aurretik aurreinprimaketa-lan bat izaten da. Aurreinprimaketa-prozesuak urrats koordinatu batzuk eskatzen ditu, altzairu-xaflen gaineko litografia-prozesuan ekoiztiko diren diseinuak eta fitxategi digitalak prestatzeko. Horren barruan sartzen da hasierako diseinua jasotzea edo sortzea, eta, ondoren, irudiak digitalizatzea eta tratatzea, eskatutako kalitatea eta doitasuna ziurtatzeko. Jarraian, fitxategiak findu egiten dira, esaterako, tamaina-aldaketekin edo kolore-bazterkinekin, ondoren prozesatzeko. Horren ostean, inprimaketa-plantxak ekoizteari ekiten zaio, CTP inprimagailuak, film bihurtzeko gailuak eta beste zenbait ekipa erabiliz. Xafla horiek inprimaketa-gorputzetan muntatzen dira, ordena egokian. Gainera, euskarri metalikoan inprimatzeko probak egiten dira, azken produktuaren kalitatea egiaztatzeko, masa-ekoizpenaren aurretik. Prozesu horretan, beharrezko diren inprimaketa-parametroak ezartzen eta doitzen dira, hala nola bilbe mota eta koloreen konbinazioa, altzairuzko xaflen erreproduzio zehatza eta kalitate handikoa bermatze aldera.

Aurreinprimaketa prozesu hauek osatzen dute:

- Ordenagailuak, zerbitzariak: haietan, irudien tratamendua egiten da.
- AGFA AVALON CTPa (Computer to Plate): plantxak film bihurtzeko aukera ematen du.
- FUJIFILM PT-R16000S CTPa (Computer to plate): plantxak film bihurtzeko aukera ematen du.
- Plantxa-prozesadorea: litografia-lineetan erabili beharreko plantxak lortzeko aukera ematen du.
- KODAK APPROVAL eta ORIS FLEX PACK, ROLAND inprimagailuarekin: latorri, TFS eta aluminioaren gaineko probak egitea ahalbidetzen duten euskarri metalikoaren gaineko proba-sistemak. Proba horien bidez, ontziak enbutitu edo muntatu daitezke, bezeroei aurkezteko.
- Aurreinprimaketa: FM bilbeak (trama estokastikoak) edo hazbeteko 200 lerro erabiltzeko aukera, lanak 6 koloretan konbinatuta (HEXAKROMIA).

Azken produktua orri litografiatuak edo bernizatuak dira, ontziak eta askotariko apaingarriak egiteko erabilgarriak.

Litalsak, batez ere, 2 eta 3 piezako ontziak fabrikatzen dituzten enpresentzat lan egiten du —tapak oro har, erraz irekitzeko tapak, koroa tapoia, Twist-Off motako tapak, hori guztia latorrian—. Aplikazioak eta erabilerak askotarikoak izan daitezke: elikadura, dekorazioa, pinturak, aerosolak eta abar.

Hau da lantegiaren ekoizpen-gaitasuna:

- 248.713.920 m² orri bernizatu.
- 106.591.680 m² orri litografiatu.
- 13.118.976 m² orri ijeztu (disolbatzailerik gabe).

Kontsumorako ura, ekoizpen-prozesuetakoa zein enpresako langileek erabiltzen dutena, Arabako Errioxako Ur Partzuergoko sare primariotik hartzen da eta urteko batez besteko kontsumoa 5.500 m³-koa da.

Hauek dira lantegian erabilitako energia-iturriak:

- Gas naturala, enpresan eta erraustegietan dauden txapa bernizatuak lehortzeko 10 tuneletan erregai gisa erabiltzen dena (urtean 38.993.344 kWh kontsumitu ziren 2021ean, eta 2022an, berriz, 34.694.042 kWh).
- Elektrizitate horretarako hiru transformazio-zentro daude, bakoitza 1.000 kVA-koa (urtean 9.394.098 kWh kontsumitu zen 2021ean, 2022an, berriz, 8.643.458 kWh).
- GLP instalazio bat du: enpresaren 11 orga jasotzaileek erabiltzen dute (kontsumoa: 69,68 t/urte).
- 1.500 l-ko gasolio-tanga, bobina-orgak erabiltzen duena (5.761 litroko kontsumoa 2021ean, eta 7.373 litrokoa 2022an).

Litografia Alavesa SLUK badu ingurumen-kudeaketako sistema bat ziurtatuta. Sistema horren barruan daude bildurik energia-efizientziako plan bat, ur-kontsumoaren jarraipena egiteko sistema bat eta hondakinak minimizatzekeo jarraipen-sistema bat.

Emisio atmosferikoei dagokienez, kutsatzaileak aireratzen dituzten 18 foku konfinatu sistematikori lotuta daude, honela banatuta:

Bernizatzea.

- Tandem 1-2 (linea bikoitza).
 - Tandem 1 berniza aplikatzea eta lehortzea – 19. fokua (fokuaren aurreko kodea: B7) (arazketa-sistema: erraustegi integratua).
 - Tandem 1 lehortze-labeko kola – 20. fokua (B8).
 - Tandem 2 berniza aplikatzea eta lehortzea – 22. fokua (B10) (RTO2).
 - Tandem 2 lehortze-labeko kola – 7. fokua (B6).
- Tandem 3-4 (linea bikoitza).
 - Tandem 3 berniza aplikatzea eta lehortzea – 22. fokua (B10) (RTO2).
 - Tandem 3 lehortze-labeko kola – 26. fokua (B12).
 - Tandem 4 berniza aplikatzea eta lehortzea – 25. fokua (B11) (erraustegi integratua).
 - Tandem 4 lehortze-labeko kola – 27. fokua (B13).
- B3 (lehen M3).
 - Berniza aplikatzea eta lehortzea – 1. fokua (B1) (RTO1).
 - Lehortze-labeko kola – 5. fokua (B4).
- B4 (lehen M4).
 - Berniza aplikatzea eta lehortzea – 2. fokua (B2) (erraustegi integratua).
 - Lehortze-labeko kola – 3. fokua (B3).
- B5 (lehen M5).
 - Berniza aplikatzea eta lehortzea – 1. fokua (B1) RTO1.
 - Lehortze-labeko kola – 4. fokua (B3).

Litografiatua.

- Sprinta (bernizatze gardeneko fase bat du litografiatu ondoren).
 - Litografiatze fasea.
 - Bernizatze fasea.
 - Berniza aplikatzea eta lehortzea – 22. fokua (B10) (RTO2).
 - Lehortze-labeko kola – 6. fokua (B5).
- M2 (bernizatze gardeneko fase bat du litografiatu ondoren).
 - Litografiatze fasea.
 - Tinta aplikatzea – 8. fokua (L1).
 - Bernizatze fasea.
 - Berniza aplikatzea eta lehortzea – 1. fokua (B1) (RTO1).
 - Lehortze-labeko kola – 21. fokua (B9).

- M3.
 - Litografiatze fasea.
 - Tinta aplikatzea – 23. fokua (L7).
 - Tinta lehortzea – 24. fokua (L8).
- M4 (bernizatze gardeneko fase bat du litografiatu ondoren).
 - Litografiatze fasea.
 - Bernizatze fasea.
 - Berniza aplikatzea eta lehortzea – 1. fokua (B1) (RTO1).
 - Lehortze-labea kola – 28. fokua (L11).

Gainera, sistematikoak ez diren bi emisio konfinatu daude garbitegi-jarduerari loturik.

Berniza eta gasa lehortzeko labeetako sugar zuzeneko 3 erraustegiek (T1 tandem-makina; T4 tandem-makina eta M4 B4 makina) lehortze-beroaren eraginez lurrundutako osagai guztiak berreskuratzen dituzte, eta gasaren errekuntza-ganbera berean errausten dituzte, errekuntza-beroa aprobetxatuz. Kontrol-sistema bat dute, eta, erraustegia martxan ez dagoela hautemanez gero, labeek ez dute funtzionatzen.

Bi sistemek (RTO, oxidatzaile birsortzaileak) disolbatzaileak dituzten irteera-aireak arazten dituzte, eta elkarrekin konektatuta daude. Kontrol-sistemak dituzte, eta, tenperatura-irakurketen bidez, funtzionamendua ziurtatzen dute eta kontsumoak minimizatzeko bypassak dituzte.

Instalazioak husten dituen urei dagokienez, bi eratakoak dira: kutsadurarik ekar ez dezaketen euri-urak eta bulego eta komunetako ur beltzak. Guztiak Arabako Errioxako Ur Partzuergoaren saneamendu-sarera isurtzen dira bost isurketa-puntu independenteren bidez (euri-sareko 2 puntu eta komunetako eta aldageletako komunetatik datozen hondakin-sareko 3 puntu).

Instalazioan, *Best Available Techniques (BAT) Reference Document on Surface Treatment Using Organic Solvents including Preservation of Wood and Wood Products with Chemicals* erreferentziako dokumentuan adierazitako teknika erabilgarri onenak baliatzen dira, hala nola ur-oinarriko/disolbatzaileko estaldura-sistemak eta tintak, laminetako Sheetfed estaldurak, orrikako Sheetfed teknologiarako arrabolak, oxidazio termikoa (bi erraustegiren bidez), UV konposatuen erabilera (bernizak eta tintak), litografia-tinta guztiak erradiazio bidez ontzea eta inprimaketa litografikoa (offset-hezea).

Instalazioak baditu behar diren baliabide teknikoak eta antolakuntzakoak, eta, horrenbestez, betetzen du Batzordearen 2020/2009 Betearazpen Erabakia (EB), 2020ko ekainaren 22koa, industria-emisioei buruz teknika erabilgarri onenei buruzko ondorioak ezartzen dituen, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2010/75/EB Zuzentarauari jarraikiz, gainazalak disolbatzaile organikoekin tratatzeko, barnean harturik zura eta zuretik eratorritako produktuak produktu kimikoen bidez kontserbatzea. Horietatik, aplikatzekoak dira «1.1.- Teknika erabilgarri onenei (TEO) buruzko ondorio orokorrak» (TEO1-TEO11, TEO13-TEO17, TEO19-TEO20, TEO22-TEO23) eta «1.10.- Metalezko bilgarriak estali eta inprimatzeko TEOei buruzko ondorioak».

IPPC JARDUERAK USTIATZEKO ETA ETETEKO BALDINTZA OROKORREN ERANSKINA

Sustatzaileak baldintza hauek bete beharko ditu jarduera ustiatzeko eta eteteko:

- Ingurumen-baimen bateratuaren baldintza partikular guztiak.
- Baldintza partikularren atala duten baldintza orokorrak bakarrik.

Nolanahi ere, baldintza partikularrak gailenduko zaizkie baldintza orokorre.

ATALA: AIREA – BALDINTZA OROKORRAK

AIREAREN KALITATEA BABESTEKO BALDINTZA OROKORRAK

Baldintza orokorrak

Lantegia ustiatzean, ez dira gaindituko ingurumen-baimen bateratu honetan ezarritako gehieneko emisioen muga-balioak, eta ingurumen-organo honek ezarritako baldintza teknikoak bete beharko dira.

Prozesuan zehar aire ratzen den gai kutsatzaile oro bildu eta bide egokienetatik kanporatuko da, emisio horien ezaugarrien arabera diseinatutako gasak arazteko sistema batetik iraganarazi ondoren, behar izanez gero.

Arau orokor honetatik salbuetsi ahalko dira emisio konfinatu gabeak, baldin eta teknikoki edota ekonomikoki atzeman ezin badira edo ingurunean oso eragin txikia dutela frogatuta badago.

Neurri egokiak hartuko dira istripuz gertatutako emisioen probabilitatea txikitzeko, eta haien efluenteez giza osasunerako nahiz segurtasun publikorako arriskurik ez izateko. Gas-efluenteak tratatzeko instalazioak behar bezala ustiatu eta mantenduko dira; alegia, efluenteen tenperatura- eta konposizio-aldaketei eraginkortasunez aurre egiteko moduan. Era berean, ahalik eta gehien murriztuko dira instalazio horiek gaizki dabilzan edo geldirik dauden aldiak.

Atmosfera Kutsa dezaketen jardueretarako instalazioak arautzen dituen abenduaren 27ko 278/2011 Dekretuaren 5. artikuluan jasotako betebeharrak bete beharko dituzte instalazioaren titularrek.

Organo honek foku berri bat baimendu ondoren, hura abiarazten denetik sei hilabete igaro baino lehen, ingurumen-kontrolako entitate batek egindako ILE txosten bat igorri beharko da. Nolanahi ere, epe hori luzatzeko eskatu ahalko dio ingurumen-organoari, betiere behar bezala justifikatutako arrazoiak direla medio.

- Atmosfera kutsa dezaketen jardueren identifikazioa: Fokuak katalogatzea.

Instalazioak AIREA – Baldintza Partikularrak atalean jasotako fokuak ditu, Airearen kalitateari eta atmosfera babesteari buruzko azaroaren 15eko 34/2007 Legean adierazitako atmosfera kutsa dezaketen jardueren katalogoan sartuta daudenak.

Urte jakin batean foku sistematiko batek foku ez-sistematiko batek bezala funtzionatzen badu, ez da foku horren gaineko kontrolik egin beharko urte horretan. Ondoko urtean egin beharko da, baldin eta kontrola salbuesteko baldintzek jarraitzen ez badute. Ingurumena zaintzeko dagokion programan justifikatu beharko da inguruabar hori.

- Gasak biltzeko eta husteko sistemak.

Fokuetako hondakin-gasak kanporatzeko tximiniak ez dira egongo Airean – Baldintza Partikularrak ataleko taulan ezarritako goreneko kotatik behera.

Atmosferaren arloko eskumenak dituen sailak argitaratutako jarraibide tekniko guztiak bete beharko dituzte honako elementu hauek: sekzioa, neurketarako gunea, laginketarako gunea, neurketarako portua, irisgarritasuna eta fokuen segurtasuna eta zerbitzuak.

Emisio lausoak murrizteko helburuarekin, emisioak biltzeko, husteko eta arazteko sistema guztien mantentze egokia egingo da. Gainera, emisio horiek ahalik eta gehien murrizteko jarduerak egingo dira; esaterako, instalazioak egunero eta astero garbituko dira eta abar. Aipatutako informazio guztiak jasota eta erregistratuta egon behar du prebentziozko mantentzerako eskuliburuan.

Atmosfera kutsa dezaketen eta emisio lausoak eragiten dituzten jardueren kasuan, Administrazioak irregulartasunak antzemanaz gero, hondakin-gasen irteera egokitzeko eskatu ahal izango du, baimenean irteera horiek emisio kanalizatu gisa sartzeko, betiere dagozkion neurketa-muga eta -aldizkakotasunekin.

Kanporako hargune eta eroanbideek diluzioa saihestuko beharko dute. Foku kanalizatuek, gutxienez, Aireari buruzko baldintza partikularrei buruzko ataleko fokuen taulan adierazitako emisioak arazteko sistemak izan beharko dituzte.

– Atmosferara egindako emisioak kontrolatzea.

Instalazioak emisioak kontrolatu beharko ditu, baimeneko Aire – Baldintza Partikularrak ataleko taulan ezarritakoari jarraikiz.

Aipatutako neurketa guztiak administrazioaren II. mailako lankidetzaren erakunde batek egin beharko ditu, urriaren 16ko 212/2012 Dekretuan jasotzen den bezala; horrez gainera, aldizkako neurketa horiei buruzko txostenek Ingurumeneko sailburuaren 2012ko uztailaren 11ko Aginduan eskatzen diren betekizun guztiak bete beharko dituzte.

Halaber, Aire – Baldintza Partikularrak apartatuan azaldutako emisio-foku baten kontrola egin behar den urtean, foku horrek urtean hamabi aldiz baino gutxiagoko batez besteko maiztasunarekin funtzionatzen badu, emisio bakoitzak ordubete baino gehiago irauten duela, edo, bestela, plantaren funtzionamendu-denboraren ehuneko bosta baino txikiagoa bada, urte horretan ez da beharrezkoa izango foku horren kontrolik egitea, eta hurrengo urtean egin beharko da, betiere kontroletik salbuesteko baldintzek irauten ez badute. Inguruabar hori dagokion urteko ingurumena zaintzeko programan justifikatu beharko da.

Lortutako emaitzen erregistro bat egingo da eguneratutako dokumentazioarekin, betiere honako xedapen hauetan ezarritakoari jarraikiz: Atmosfera kutsa dezaketen jardueren katalogoa eguneratzen eta hura ezartzeko oinarritzko xedapenak finkatzen dituen urtarrilaren 28ko 100/2011 Errege Dekretuaren 8. artikulua eta Atmosfera kutsa dezaketen jarduerak egiten dituzten instalazioak arautzen dituen abenduaren 27ko 278/2011 Dekretuaren III. eranskina.

Erregistro hori eguneratuta eta ingurumen-ikuskatzaileen eskura egongo da.

Jardueraren kontrolean sortutako dokumentazioa ingurumen-organoari igorriko zaio, Ingurumena Zaintzeko Programa – Baldintza Orokorrak atalean adierazitakoaren arabera.

– Disolbatzaileak erabiltzeak eragindako konposatu organiko lurrunkorren emisioen kontrola.

Sustatzaileak zenbait jardueratan disolbatzaileak erabiltzeagatik sortzen diren konposatu organiko lurrunkorren emisioak murrizteko urtarrilaren 31ko 117/2003 Errege Dekretuan ezarritakoa bete beharko du.

Urtarrilaren 31ko 117/2003 Errege Dekretuak xedatutakoaren aplikazio-eremuan aurkitzen den merkataritza-elkartea denez, instalazioak urtero bidali beharko du, dagokion urteko ingurumen-zaintzako programaren barnean, konposatu organiko lurrunkorren emisioak sortzen dituzten instalazioei buruzko urtarrilaren 8ko 1/2013 Dekretuaren 9.1. artikuluan zehazten duen dokumentazioa.

Urte jakin batean sustatzailearen disolbatzaile-kontsumoa ez bada iritsi urtarrilaren 31ko 117/2003 Errege Dekretuak II. eranskinean ezartzen duen urteko kontsumoaren atalera, instalazioak soilik igorri beharko du urteko disolbatzaile-kontsumoaren taula, 1/2013 Dekretuaren 9.2. artikulua agintzen duen moduan.

1/2013 Dekretuaren 9.1 eta 9.2 artikuluetan aipatzen diren dokumentuak bidaltzeko, Ingurumena Zaintzeko Programari buruzko baldintza orokorrak eta partikularrak ataletako jarraibideak bete beharko dira.

Baldin eta ekoizpen-aldaketak egiten dituelako edo lehengai berriak erabiltzeagatik sustatzaileak aurreikusiko balu utzi egin behar diola urtarrilaren 31ko 117/2003 Errege Dekretuaren II. eranskinean barnebilduta egoteari, behar bezala arrazoitu beharko du zio hori EAEn konposatu organiko lurrunkorren emisioak sortzen dituzten instalazioen zerrendan duen inskripzioa baliogabetzeko, 1/2013 Dekretuaren 8. artikuluan agintzen den eran, eta, behar izanez gero, ingurumen-baimen bateratuan dituen atmosferarako emisioen baldintzak aldatu ahal izateko.

ATALA: HONDAKINAK SORTZEA – BALDINTZA OROKORRAK

LANTEGIAN SORTUTAKO HONDAKINAK EGOKI KUDEATZEN DIRELA BERMATZEKO BALDINTZAK OROKORRAK

Atal honek hondakinak prebenitzeko eta sortzeko baldintzak ezartzen ditu, arlo horretako araudi sektorialak ekoizle gisa identifikatzen dituen aplikatu beharrekoak. Sustatzaileak sortutako hondakinei aplikatuko zaie, Hondakinak sortzea – Baldintza Partikularrak atalean zehazten direnei.

Instalazioetan sortutako hondakin guztiak Hondakinak eta lurzoru kutsatuak arautu eta ekonomia zirkularra bultzatzeko apirilaren 8ko 7/2022 Legeak ezarritakoaren arabera eta aplikatzekoak diren berriazko araudiek agindutakoaren arabera kudeatuko dira.

Hondakinen ekoizleek neurri hauek bete beharko dituzte:

– Identifikazioa eta ezaugarriak.

Ezaugarriak.

Sortutako hondakinak identifikatu eta karakterizatu beharko dira, horien izaera eta helmugarik egokiena zehazteko.

Hondakinen arriskugarritasuna Batzordearen 1357/2014 (EB) Erregelamenduan jasotako sailkapenaren arabera izango da (1357/2014 Erregelamendua, 2014ko abenduaren 18koa, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2008/98/EE Zuzentarauaren III. eranskina ordeztzen duena, hondakinei buruzkoa, eta zuzentarau jakin batzuk indargabetzen zituena). Karakterizatu beharreko hondakinak Hondakinak sortzea – Baldintza Partikularrak atalean azaltzen dira. Edonola ere, karakterizate-lana egiteko «1357/2014 Erregelamendua aplikatzeko irizpideen gida» erabiliko da. Esteka honetan dago eskuragarri:

https://www.euskadi.eus/contenidos/documentacion/guia1357/eu_def/adjuntos/1357-2014gida.pdf

Alde horretatik, sustatzaileak ingurumen-organoari kontsulta egin ahal izango dio Inguruneteko «Dokumentuak bidaltzea – DOC» («Hondakinen sailkapena» modukoa) prozeduraren bidez.

Jatorrian bereiztea.

Berriaz debekatuta dago sortzen diren tipologia ezberdineko hondakinak elkarrekin edo beste hondakin edota efluente batzuekin nahastea. Hondakinak jatorritik bertatik bereiziko dira, eta horiek biltzeko eta biltegitatzeko baliabide egokiak jarriko dira, aipatutako nahasketa horiek ekiditeko.

Kodifikazioa.

Hondakin bakoitzari dagokion izena eta kodea ezartzeko, hondakinaren beraren egoera eta ezaugarriak hartuko dira kontuan, baimenaren izapidetzearen esparruan dokumentatuak, eta Batzordearen 2014ko abenduaren 18ko Erabakia hartu beharko da kontuan, hondakinen zerrendari buruzko 2000/532/EE Erabakia aldatzen duena.

Sailkapenaren kontrola.

Hondakin arriskugabe gisa identifikatutako kode batekin nahiz hondakin arriskutsuaren kode batekin identifikatutako hondakinen kasuan, lehenengoz erretiratu aurretik, behar bezala sailkatu dela justifikatu beharko da. Horretarako, arrisku-ezaugarriren bat erregistratzen duten jakiteko ezaugarri analitikoak aurkeztu beharko dira, Batzordearen 2014ko abenduaren 18ko 1357/2014 (EB) Erregelamenduan (2008/98/EB Zuzentarauaren III. eranskina ordeztzen duena) ezarritako irizpideen arabera.

Emaitzen arabera, aldian behingo karakterizatze-lanak ezarri ahal izango dira, arriskugarritasunaren karakterizazioaren baliozkotasuna zehazteko.

Baldin eta aurreikusten bada hondakindegia baimenduan deuseztatzea dela hondakinen azken helmuga, orduan, hondakin horiek karakterizatuko dira, Kontseiluaren 2002ko abenduaren 19ko 2003/33/EE Erabakiak (zeinaren bidez ezarri baitira hondakinak hondakindegietan hartzeko irizpideak eta prozedurak) xedatutakoari jarraikiz, eta Hondakinak hondakindegietan biltegitratuta eta betelanak eginda ezabatzea arautzen duen otsailaren 24ko 49/2009 Dekretuak ezarritako jarraibideen arabera.

Ekoi-tzitateak.

Instalazioan sortutako hondakinen kantitatea, ingurumen-baimenetan jasotakoa, orientagarria da soilik, kontuan hartuta jardueraren ekoizpen-gorabeherak eta ekoizpenaren eta sortutako hondakinen arteko erlazioa. Datu horiek jardueraren adierazleetan ageri dira.

Instalazioan aldaketak aurreikusten direnean eta sortutako hondakinen kopurua handitzea aurreikusten denean, eta, beraz, aurretik ezarritako biltegitratze- eta ontziratze-baldintzak aldatu behar direnean, baimena egokitzea eskatu beharko da.

– Manipulazioa, ontziratzea, etiketa jartzea eta biltegitratzea.

Bilketa-sistemak.

Hondakinak biltzeko sistemak independenteak izango dira, baldin eta, tipologia dela-eta, isurketa baten ondorioz nahasiz gero arriskutsuago bihurtzeko edo kudeaketa zail badezakete.

Nahastea debekatzea.

Berariaz debekatuta egongo da sortutako hondakinen tipologia desberdinak nahastea, haien artean nahiz beste hondakin edo efluente batzuekin.

Biltegitratze-baldintza orokorrak.

Hondakinak biltegitratzeko eremuak edo eremuek lurzoru estankoa izango dute. Haien egoera fisiko, likido edo oretsua dela-eta, edo haien inpregnazio-mailarengatik isurketak eragin edo lixibiatuak sor ditzaketen hondakin arriskutsuentzat ontziak edo bilketa-sistema egokiak jarriko dira izan litezkeen isuriak kanpora isurtzea saihesteko. Hautsezko hondakinen kasuan, hondakinak euri-urarekin bustitzea edo haizeak herrestan eramatea eragotziko da eta, beharrezkoa izanez gero, estali egingo dira.

Hondakin arriskutsuak biltegitratuz gero, aterpean egon beharko dute, eta isurketak eta jarioak atxikitzeko sistemak izan beharko dituzte.

Produktu kimikoen biltegitratze-baldintzak.

Likido sukoiak eta erregaiak, korrosiboak edo toxikoak dituzten hondakinak biltegitratu behar izanez gero, edo ontzi mugikorretan biltegitratu behar izanez gero —gasak barne—, erreferentzia tekniko gisa erabiliko dira ekainaren 23ko 656/2017 Errege Dekretuak (produktu kimikoak biltegitratzeko erregelamendua eta haren jarraibide tekniko osagarriak, MIE APQ 0tik 10era bitartekoak, onartzen dituen) ezarritako eraikuntza-baldintza eta baldintza tekniko berberak.

Ontziratzea eta etiketatzea.

Hondakin arriskutsuak ontziratzeke, indarrean dagoen araudian ezarritako segurtasun-arauak bete beharko dira.

Hondakin arriskutsuak dauzkaten ontziek eta ontzikiek etiketa argia, irakurgarria eta ezabagaitza eduki beharko dute, eta itxita egon beharko dute kudeatzaileari eman arte, edukiak isurita edo lurrunduta gal ez daitezten.

Hondakin arriskutsuak dituzten ontzien etiketan honako datu hauek jaso beharko dira:

– Hondakinaren kodea eta deskribapena, eta arriskugarritasun-ezaugarrien kodea eta deskribapena.

– Hondakinen ekoizlearen edo edukitzailearen izena, ingurumeneko identifikazio-zenbakia (aurrerantzean, NIMA), posta-helbidea eta helbide elektronikoa, eta telefonoa.

– Hondakinak zein egunetan utzi diren.

– Hondakinek dituzten arriskuen izaera, Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2008ko abenduaren 16ko 1272/2008 (EE) Erregelamenduan deskribatutako piktogramen bidez adieraziko dena.

Biltegitratze epea.

Hondakin horiek ezabatzeko direnean ezingo dira urtebetetik gora biltegitratu. Hondakinen azken helburua baliotzea denean, 2 urtez biltegitratu ahal izango dira.

Gainerako hondakin arriskutsuak ezin izango dira 6 hilabetez baino gehiagoz biltegitratu.

Salbuespenetzko kasuetan, ingurumen-organoak epe hori aldatu ahalko du, behar bezala justifikatutako arrazoiak direla medio, baldin eta giza osasuna eta ingurumena babestuko direla bermatzen bada.

– Kudeaketa-hierarkiaren aplikazioa.

Hondakinen kudeaketari buruzko printzipio hierarkikoei jarraikiz, teknikoki, ekonomikoki eta ingurumenaren aldetik bideragarria denean, hondakinak ez sortzen saiatu beharko da, eta horien helmugak lehenetsiko dira, araudian ezarritako kudeaketa-hierarkiaren arabera.

Dagokien ingurumen-baimenean balorizazio-helburuko eragiketa bat esleitu zaien hondakinak («R») ezingo dira ezabatu («D»); aitzitik, kudeatzaile balorizatzaile baimendu bati entregatuko zaizkio. Hondakinak ezabatzeko, ezinbestekoa izango da aldeztu behar bezala justifikatzea haien balorizazioa ez dela bideragarria teknikoki, ekonomikoki edo ingurumenaren aldetik.

Birsortzea edo berrerabiltzea lehenetsiko da balorizatzeko beste edozein modu material edo energetikoren aurretik.

– Autosufizientiaren eta hurbiltasunaren printzipioak aplikatzea.

Hondakinak tratatzeko instalazio baimenduak baldin badaude Euskal Autonomia Erkidegoan, hurbilen dauden instalazio horietara bidaliko dira lehentasunez, autosufizientzia- eta gertutasun-printzipioei jarraituz.

– Finantza-bermea.

Apirilaren 8ko 7/2022 Legearen 20.6 artikulua arabera, urtean 10 tona hondakin arriskutsu baino gehiago sortzen dituzten ekoizleek aseguru bat edo bestelako finantza-berme bat sinatu beharko dute beren jarduerak sor ditzakeen erantzukizunak estaltzeko, betiere jardueren ezaugarriak, arriskugarritasuna eta arrisku potentziala kontuan hartuta.

– Txatarra produktu gisa onartzeko baldintzak.

Sustatzaileak Kontseiluaren 2011ko martxoaren 31ko 333/2011 (EB) Erregelamenduaren 2. artikulua arabera halakorik jasotzen badu (artikulu horren bidez txatar mota jakin batzuk Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2008/98/EE Zuzentarauaren arabera hondakin izateari noiz uzten dioten zehazteko irizpideak ezartzen dira), sustatzaileak egiaztatu beharko du ezarritako baldintzak betetzen dituztela; horretarako dagozkion adostasun-adierazpenak egingo dituzte arau horren 5. artikuluan ezarritakoaren arabera. Adostasun-adierazpenak eskumena duten agintarien esku egongo dira, hala eskatzen dutenean. Halaber, jasotako adierazpenen erregistroa entregatuko da, baimen honetako Ingurumena Zaintzeko Programa – Baldintza Orokorrak atalean ezarritakoaren arabera.

– Dokumentuen kudeaketa.

Honako dokumentu hauek formalizatu beharko dira Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak eskura jarritako kanal, sistema edo aplikazio informatikoetan.

«Ingurumena zaintzeko programa bidaltzea» prozeduraren bidez entregatuko dira Ingurumena Zaintzeko Programa – Baldintza Orokorrak atalean aipatzen den webguneko «Dokumentuak» apartatuko zerrendan jasotako dokumentu motak.

Hondakinaren arriskugarritasunaren ezaugarriak.

Atal honetako «Ezaugarriak» apartatuan jasotakoaren arabera egingo dira.

Tratamendu-kontratua.

Hondakin bat entregatu aurretik, Ingurumen Jasangarritasunaren Sailburuordetzak xede horretarako gaitutako sistema informatikoan formalizatu beharko da ekoizlearen eta baimendutako kudeatzailearen arteko tratamendu-kontratu bat; bertan, hondakina onartzeko baldintzak ezarriko dira.

Tratamendu-kontratua bakarra izango da ekoizlearen eta kudeatzailearen artean egindako entregetarako, hondakina eta onarpen-baldintzak berberak badira.

Hondakinaren hasierako ekoizlearen edo edukitzailearen erantzukizuna tratamendu osoa behar bezala dokumentatuta geratzen denean amaituko da: hondakinak lekualdatzeari buruzko agirien bidez, eta, beharrezkoa denean, azken tratamendua egin duen instalazioaren ziurtagiri edo erantzukizunpeko adierazpen baten bidez egiaztatutakoan. Hasierako ekoizleak edo edukitzaileak eskubidea izango du ziurtagiri edo adierazpen horiek eskatzeko.

Artxiboan erregistratu eta gutxienez hiru urtez gorde beharko dira tratamendu-kontratuak.

Kudeatzaile baimenduaren tratamendu-kontratua izateko, garraioaren aurretiko jakinarazpena egiteko eta identifikazio-agiria betetzeko betebeharretik salbu egongo dira kudeaketa-sistema integratuko kudeaketa-azpiegituretara eramaten diren hondakinak, bai eta toki-entitateei ematen zaizkien ere, gaika bildutako udal-hondakinekin eta haien parekoak direnekin batera kudeatu ditzaten, baldin eta dagokion toki-entitateek entrega horiek egin direla egiaztatzen badute. Toki-entitateei egindako entregak justifikatzeko agiriak hiru urtez gorde beharko dira gutxienez.

Identifikazio-agiria.

Hondakin bat lekualdatzeko, hondakin hori identifikatuko duen dokumentu bat beharko da une oro. Bertan jasoko da Estatuko lurraldean hondakinen lekualdaketa arautzen duen ekainaren 2ko 553/2020 Errege Dekretuaren I. eta III. eranskinetako informazioa.

Artxiboan erregistratu eta gutxienez hiru urtez gorde beharko dira identifikazio-dokumentuak.

Aldez aurretiko jakinarazpena.

Era berean, aldez aurretiko jakinarazpena egin beharko da, 553/2020 Errege Dekretuaren II. eranskinetako edukia jasota, honako lekualdaketa hauen kasuan:

- Deuseztatzeko hondakinak lekualdatzea (arriskutsuak eta arriskugabeak).
- Hondakin arriskutsuak, nahasita dauden etxeko hondakinak (EHZ 20 03 01 kodearekin identifikatuta daudenak) eta arauz ezartzen direnak lekualdatzea, balorizatzeke.

Nahitaezko aurretiko jakinarazpen-kasuetan, Hondakinak eta lurzoru kutsatuak arautu eta ekonomia zirkularra bultzatzeko apirilaren 8ko 7/2022 Legearen 31. artikuluan xedatutako eta ekainaren 2ko 553/2020 Errege Dekretuaren 9. artikuluan garatutako kausetako bat gertatzen denean, hala EAEko ingurumen-organoak nola helmugako autonomia-erkidegoko organo eskudunak hondakinak garraiatzearen aurka egin ahalko dute; arrazoitutako erabakia garraio-jakinarazpena aurkeztu eta gehienez hamar eguneko epean jakinarazi beharko diote operadoreari.

Jakinarazpen orokor bat egin ahal izango da gehienez ere hiru urterako, instalazio berera joango diren eta antzeko ezaugarri fisikoak eta kimikoak dituzten hondakinetarako.

Aldez aurretiko jakinarazpenak gutxienez hiru urtez gordeko dira indarraldia amaitu ondoren.

Garraioa egiaztatzea.

Hondakin arriskutsuen kasuan, egiaztatu beharko da hondakinak kudeatzaile baimenduaren instalazioetara eramateko erabiliko den garraiobideak behar bezala betetzen dituela horrelako gaiak garraiatzeko ezarritako baldintzak, indarrean dagoen legeriaren arabera.

Dagokion ingurumen-baimenean enpresa beraren instalazioen artean hondakinak lekualdatzeko aukera ematen bada, salgai arriskutsuen errepide bidezko nazioarteko garraioari buruzko Europako Akordioa (ADR 2021) bete beharko da, aplikatzekoa den hondakinei dagokienez.

Mugaz gaindiko garraioa (esportazioa).

Baldin eta hondakinak Espainiatik kanpora esportatzen badira, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2006ko ekainaren 14ko 1013/2006 Erregelamenduan (hondakinen lekualdaketei buruzkoa) ezarritakoa bete beharko da.

Artxibo kronologikoa.

Urtean hondakin arriskugabeen 10 tona baino gehiago sortzen dituzten hasierako ekoizleek, artxibo elektroniko batean, honako datu hauek jaso beharko dituzte, ordena kronologikoan: sortutako hondakinen kantitatea, izaera eta jatorria, eta berrerabiltzeko prestatzeko, birziklatzeko, beste balorizazio-eragiketa batzuk egiteko eta deuseztatzeko produktu, material edo substantzien eta horien ondoriozko hondakinen kantitatea; hala badagokio, eragiketa horien ondorioz sortutako hondakinaren helmuga, bilketaren maiztasuna, garraiobidea eta aurreikusitako tratamendu-metodoa ere inskribatuko dira, bai eta produktu, material eta substantzien helmuga ere. Artxibo kronologikoaren inskripzioak, aplikatzekoa denean, 7/2022 Legearen II. eta III. eranskinen arabera baimendutako tratamendu-eragiketa bakoitzeko egingo dira.

Enpresak urtero bidali beharko dio artxibo kronologikoa Ingurumen Jasangarritasunaren Sailburuordetzari, urteko ingurumena zaintzeko programaren txostenean. Era berean, aldi baterako biltegitatuta dauden hondakinen zerrenda bidali beharko dio adierazpenaren xede den ekitaldia amaitzean.

Azpiproduktuak sortzen edo erabiltzen dituzten entitate edo enpresek erregistro kronologiko bat izango dute, azpiproduktu gisa ekoiztutako eta kudeatutako kantitateak eta horien helmugak/jatorria biltzen dituen.

Artxibo kronologikoko informazioa gutxienez bost urtean gordeko da, eta agintari eskudunen eskueran edukiko da, ikuskapen- eta kontrol-ondorioetarako.

Laburpen-memoria.

Hondakinak eta lurzoru kutsatuak arautu eta ekonomia zirkularra bultzatzeko apirilaren 8ko 7/2022 Legearen 65. artikuluan ezarritakoaren arabera, sustatzaileak, datuak jaso ondorengo urteko martxoaren 31 baino lehen eta dagokion ingurumena zaintzeko programaren barruan, artxibo kronologikoan jasotako informazioaren laburpen-memoria bat aurkeztu beharko du, zeinak lege horren XV. eranskinean agertzen den gutxieneko edukia barne hartu beharko baitu.

Minimizazio-plana.

Hondakin arriskutsuen hasierako ekoizleek nahitaez aurkeztu beharko dute minimizazio-plan bat lau urtez behin, sortutako hondakin arriskutsuen kantitatea eta horien arriskua murrizteko hartuko dituzten praktikak jasoko dituen. Ez dute plan hori aurkeztu beharrik izango urtean 10 tona baino gutxiago sortzen dituzten hondakin arriskutsuen hasierako ekoizleek, instalazio- eta mantentze-enpresek, eta EMAS ziurtagiria edo mota horretako hondakinak minimizatzeko neurriak aplikatzen dituen beste sistema baliokideren bat duten hasierako ekoizleek. Informazio hori ingurumen-adierazpen baliozkotuan jasoko da. Aipatutako salbuespen-araubideren batean egonez gero, dagokion egiaztagiria aurkeztu beharko da.

Dagokion urteko minimizazio-plana, edo behin bakarrik salbuetsita egotearen egiaztagiria, ingurumena zaintzeko programan entregatu beharko da, 121 kodearekin.

Ontziak merkaturatzea. Prebentziorako eta ekodiseinurako enpresa-plana.

Enpresak produktu ontziratuak eta bilgarridunak merkaturatzen baditu, bilgarri horien gaineko informazioa eman beharko du urtero, martxoaren 31 baino lehen; horretarako, Ontzien Gaineko Urteko Adierazpena egin beharko du. Datu horiekin batera, ingurumena zaintzeko programa bidaliko du, dagokion urtekoa.

Halaber, ontzien eta ontzi-hondakinen abenduaren 27ko 1055/2022 Errege Dekretuaren 43. artikuluan hornitzaileei ezartzen zaizkien betebeharrak bete beharko ditu.

Baldin eta sustatzaileak, urte natural batean zehar, merkaturatzen baditu ontziratutako produktuak, edo, kasua bada, hondakinak sor ditzaketen industria- edo merkataritza-ontziak, hain justu ere jarraian zehaztutako kantitateetan baino handiagoetan:

- 250 tona, beira soilik bada.
- 50 tona, altzairua soilik bada.
- 30 tona, aluminioa soilik bada.
- 20 tona, plastikoa soilik bada.
- 20 tona, zura soilik bada.
- 15 tona, kartoia edo material konposatuak soilik badira.
- 300 tona, hainbat material badira, eta bakoitzak, bera bakarrik hartuta, ez baditu lehen aipatutako kantitateak gainditzen.

Ekodiseinu eta Prebentzioko Enpresa Plan horretan, kontuan hartu beharko ditu ontzi-hondakinak prebenitzeko tresnetako zehaztapenak. Halaber, aurreko planetako helburuen betetze-mailaren laburpena sartu beharko du, prebentzio-helburu kuantifikatu berriak adierazita, baita horiek erdiesteko neurriak eta betetzen dituela kontrolatzeko mekanismoak ere, abenduaren 27ko 1055/2022 Errege Dekretuaren 18. artikuluari jarraikiz. Plana amaitu eta hiru hilabeteen barruan, planari buruzko txostena bidali beharko da, bertan adierazita zenbateraino bete diren planean jasotako prebentzio-neurriak.

Bi dokumentuak bost urtez behin bidaliko dira, dagokion urteko ingurumena zaintzeko programarekin batera, eta betiere Ingurumena Zaintzeko Programa – Baldintza Orokorrak eta Ingurumena Zaintzeko Programa – Baldintza Partikularrak ataletan ezarritako jarraibideen arabera.

- Baldintza espezifikoak.

Baimenaren Hondakinak sortzea – Baldintza Partikularrak atalean identifikatzen diren ekoiztutako hondakinen arabera, honako baldintza espezifiko hauek bete beharko dira:

Ekoiztutako hondakina	Baldintza
180103	Berriazko hondakin sanitarioak (II. taldea) manipulatu, ontziratatu, etiketatu eta biltegitratzeko baldintzak Hondakin Sanitarioak Kudeatzeari buruzko martxoaren 3ko 21/2015 Dekretuan eta hura garatzeko ondorengo araudietan ezarritakoak izango dira.
Epigrafeen kodeak 13 01 13 02 13 03 13 05 13 08	Industrian erabilitako olioaren kudeaketa arautzen duen ekainaren 2ko 679/2006 Errege Dekretuari jarraituz kudeatu beharko da sortutako olio erabilia.
160213 160214	Ekipamendu elektriko eta elektronikoen hondakinak —besteak beste, lanpara fluoreszenteenak— kudeatuko dira Gailu Elektriko eta Elektronikoen Hondakinei buruzko otsailaren 20ko 110/2015 Errege Dekretuan xedatuaren arabera.
160213 160214	Ekoizleak ozono-geruza agortzen duten substantziei buruzko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 1005/2009 (EE) Erregelamenduan zehaztutako gai erabiliak baldin baditu, berreskuratuko egingo dira alderdiek onetsitako bitarteko tekniko bidez deuseztatzeko, edo ingurumenaren ikuspegitik onargarria den beste edozein deuseztatze-bide tekniko erabiliz, edota birziklatzeko edo birsortzeko xedez, tresnak berrikusi eta mantentzeko eragiketetan nahiz desmuntatu edo deuseztatu aurretik.
160602 160603 160604 160605 160606 200133	Pilen eta metagailuen hondakinek Pilei eta metagailuei eta haien hondakinen ingurumen-kudeaketari buruzko otsailaren 1eko 106/2008 Errege Dekretuan xedatutakoa bete beharko dute.

Ekoizitako hondakina	Baldintza
130301 160109 160209 160210 160213 170902	Ekoizleak poliklorobifeniloak (PCB) dituzten edo izan ditzaketen aparatuak dauzkan bitartean, haiiek behar bezala kudeatzeko, Poliklorobifeniloak, polikloroterfeniloak eta horiek dituzten aparatuak ezabatzeko eta kudeatzeko neurriak ezartzen dituen abuztuaren 27ko 1378/1999 Errege Dekretuan eta lege hori aldatu zuen otsailaren 24ko 228/2006 Errege Dekretuan adierazitako baldintzak bete beharko ditu.
150101 150102 150103 150104 150105 150106 150107 150110 150111	Sustatzailea industria-ontzi baten azken jabea bada, abenduaren 27ko 1055/2022 Errege Dekretuaren 44. artikuluan xedatutako betekizunak bete beharko ditu.
170601 170605	Amiantoa duten hondakinak daudela hautemanaz gero, sustatzaileak Amiantoak ingurumenean sortzen duen kutsadura saihestu eta gutxitzeari buruzko 108/1991 Errege Dekretuaren 3. artikuluan ezarrita dauden eskakizunak bete beharko ditu. Era berean, amiantoa duten hondakinak kudeatzeko manipulazioak 396/2006 Errege Dekretuaren arabera egingo dira, zeinaren bidez ezartzen baitira amiantoaren eraginpean egoteko arriskua duten lanei aplikatu dakizkiekeen segurtasun eta osasuneko gutxieneko xedapenak.

ATALA: KUDEAKETA – BALDINTZA OROKORRAK

HONDAKINAK JASO, MANIPULATU ETA BILTEGIRATZEKO BALDINTZA OROKORRAK.

Erantzukizun zibileko aseguru bat egin beharko da, gutxienez ingurumen-baimen bateratuko Hondakinen Kudeaketa – Baldintza Partikularrak atalean ezarritako zenbatekoarekin, honako hauek estaliko dituen: hirugarren pertsonai edo haien ondasunei sortutako balizko kalteengatiko kalte-ordainak, eta baimen honek onartutako jardueraren ondorioz aldatutako ingurumena konpontzeko eta oneratzeko kostuak.

Aseguru horren zenbatekoa urtero eguneratu ahal izango da, aurreko 12 hilabeteetako kontsumoko prezioen indizearen (KPI) arabera handituta.

Sustatzaileak hondakinak balorizatuko ditu, Hondakinen Kudeaketa – Baldintza Partikularrak atalean deskribatutako jardueraren bidez.

Lantegian tratatzea aurreikusten den hondakin-jatorri berri bakoitzeko, operadoreak dagokion tratamendu-kontratua igorriko dio Ingurumen Jasangarritasuneko Sailburuordetzari, eta kontratu horretan, hala badagokio, hondakina onartzeko parametro mugatzaile edo baldintzatzaileen proposamena erantsiko da. Ingurumena Zaintzeko Programa – Baldintza Orokorrak atalean ezarritako moduan entregatuko da.

Hondakin jakin bat onar daitekeela egiaztatu ondoren, sustatzaileak onarpena ziurtatzen duen agiria igorriko dio hondakinaren titularrari, onarpenaren baldintzak ezarrita. Horretaz gainera, hondakina onartzeko parametro mugatzaileak edo baldintzatzaileak jasoko dira, eta, hala badagokio, hondakin-partida bakoitza hartu aurretik aztertu beharreko parametroak.

– Hondakin onargarriak.

Sustatzailearen lantegian tratatu beharreko hondakinak Europako Hondakinen Zerrendan jasotakoak izango dira. Zerrenda hori Batzordearen 2014ko abenduaren 18ko Erabakiaren bidez argitaratu zen (erabaki horren bidez aldatu egin zen 2000/532/EE Erabakia, Hondakinen zerrendari buruzkoa, Europako Parlamentuaren eta Batzordearen 2008/98/EE Zuzentarauaren arabera), eta Hondakinen Kudeaketa – Baldintza Partikularrak ataleko taulan ezarritako epigrafeak ditu.

Lantegian inola ere ezingo dira onartu baimenean zehaztu ez diren hondakinak, ez eta, hondakin onargarrien artean adierazitakoak izanik ere, beste hondakin mota generikoren batekin kutsatuta daudenak ere.

Jasotako hondakinek ezingo dute izan 2008/98/EE Zuzentarauaren III. eranskina ordeztzen duen Batzordearen 2014ko abenduaren 18ko 1357/2014 Erregelamenduan ezarritako arrisku-ezaugarrietako bat ere.

Hondakinak beste autonomia-erkidego batetik lekualdatzeko, identifikazio-agiri bat aurkeztu beharko da, jarraipena eta kontrola egiteko, bat etorri Hondakinak eta lurzoru kutsatuak arautu eta ekonomia zirkularra bultzatzeko apirilaren 8ko 7/2022 Legearen 31.2 artikularekin.

– Hondakin arriskugabeen sarrera kontrolatzea.

Balorizazioa egiteko, lantegira iristen diren hondakin arriskugabeen kontrola egin beharko da, bermatzeko ezen baimen honetako baldintzen arabera onargarriak direla lantegian.

Kontrol horretan, Ingurumen Jasangarritasuneko Sailburuordetzak onartutako tratamendu-kontratuan ezartzen den egiaztapena egin beharko da. Agiri horretan, muga-parametroak eta onartzeko baldintzak ezarriko dira. Egiaztatze hori sarrera-kontrolako agiri batean erregistratuta geratuko da.

Ezin izango dira onartu baimen honetan adierazitakoez bestelako hondakinak. Nolanahi ere, hondakin mota gehiago kudeatu ahal izateko, aldez aurretik Ingurumen Jasangarritasuneko Sailburuordetzaren onospena beharko da, eta ingurumen-organoari jardueraren aldaketa jakinarazteko betebeharrak orokorrean dagokienez xedatutakoa bete.

– Zamalanak.

Hondakin horien zamalanak egiteko ibilgailuen aparkalekuek zola iragazgaitza izango dute, eta behar diren maldak eta balizko isuriak biltzeko sareak, horiek kutxatila itsurantz edo biltzeko putzurantz zuzentzeko, bidean ibilgailuaren azpitik igaro gabe edo beste ibilgailu edo instalazio batzuetara hurbildu gabe.

Lantegian hondakinekin zamalanak egitean edo hondakinak manipulatzeko, kontu handia izan beharko da kontrolik gabeko emisiorik edo emisio lausorik ez egoteko, edo, bestela, emisio horiek ahalik eta txikiak izateko. Alde horretatik, ekipoen estankotasuna ziurtatzea ere garrantzitsua izango da.

– Jasotako hondakinak biltegitratzea

Hondakinak estankotasun-baldintza egokietan biltegitratuko dira, gerta daitezkeen ihes edo isurien balizko eragina saiheste aldera; hala gertatuz gero, horiek bildu eta karakterizatu egingo dira.

Hondakinak Hondakinen Kudeaketa – Baldintza Partikularrak atalean ezarritako gehieneko epean biltegitratu ahal izango dira.

Tratatu beharreko hondakinak biltegitratzeko instalazioek lurzoru iragazgaitzak izango dituzte, aurreikusitako zamak jasateko eta egon litezkeen ihes edo isuriei eusteko gai direnak, eta biltegitratze-eremu bereziak izan beharko dituzte hondakin onargarrien mota generiko bakoitzerako.

Instalazioan onartutako hondakinak biltegitratzeko orduan, prezipitazio atmosferikoak sartzea eta haizeak hondakinak arrastatzea saihestu beharko da.

Hautsezko hondakinak eta soltean hartutakoak pabiloiaren barruko piloetan edo hobietan biltegitratuko dira.

Egoera fisiko likidoan edo oretsuan dauden edo oso bustita daudelako isurketak edo lixibiatuak sor ditzaketen hondakinen kasuan, horiek biltzeko kubeta edo sistema egokiak jarriko dira, ezbeharrez gerta daitezkeen isurketak kanpora irten ez daitezken. Bilketa-sistemak independenteak izan behar dute isuriren bat gertatu eta nahasiz gero arriskugarritasuna handitzea edo kudeaketa zailtzea dakarten hondakin motetarako.

– Kudeatutako hondakinen datuen erregistroa.

Urtean 10 tona hondakin arriskugabe baino gehiago sortuz gero, Ekonomia zirkularra bultzatzeko eta Hondakinei eta lurzoru kutsatuei buruzko apirilaren 8ko 7/2022 Legearen 64. artikularen arabera, sustatzaileak formatu elektronikoko artxibo kronologiko bat izan beharko du, non jasoko baitira, ordena kronologikoan, sortutako hondakinen kopurua, mota eta jatorria, bai eta berrerabiltzeko, birziklatzeko, beste balorizazio-eragiketa batzuk egiteko eta deuseztatzeko produktu, material edo substantzien eta horien ondoriozko hondakinen kopurua ere; eta, hala badagokio, eragiketa horien ondorioz sortutako hondakinaren helmuga, bilketaren maiztasuna, garraiobidea eta aurreikusitako tratamendu-metodoa ere inskribatuko dira, bai eta produktu, material eta substantzien helmuga ere. Artxibo kronologikoaren inskripzioak, aplikatzekoa denean, apirilaren 8ko 7/2022 Legearen II. eta III. eranskinen arabera baimendutako tratamendu-eragiketa bakoitzeko egingo dira. Baztertutako hondakinen kasuan, kantitatea, baztertu den hondakinaren enpresa ekoizlea, baztertzearen arrazoia eta beste gorabehera batzuk jakinaraziko dira. Aipatutako fitxategi kronologikoan, hondakinen ekoizpen- eta kudeaketa-lanen agiri bidezko egiaztapenean bildutako informazioa sartu beharko da. Artxibo kronologikoa hondakinen ekoizpen- eta kudeaketa-lanetarako eskatutako egiaztatze dokumentaleko informazioa oinarri hartuta egingo da.

Artxibo kronologiko hori bost urtez gorde beharko da gutxienez, eta urtero bidali beharko da Ingurumen Jasangarritasuneko Sailburuordetzara, Ingurumena Zaintzeko Programa – Baldintza Orokorrak ezarritakoaren arabera.

Hondakinak eta lurzoru kutsatuak arautu eta ekonomia zirkularra bultzatzeko apirilaren 8ko 7/2022 Legearen 65. artikuluan ezarritakoaren arabera, sustatzaileak, datuak jaso ondorengo urteko martxoaren 1a baino lehen eta dagokion ingurumena zaintzeko programaren barruan, artxibo kronologikoan jasotako informazioaren laburpen-memoria bat aurkeztu beharko du, gutxienez lege horren XV. eranskineko edukia barne hartu duena. Memoria hori Ingurumena Zaintzeko Plana – Baldintza Orokorrak atalean zehaztutakoaren arabera bidaliko dira.

– Estatuz kanpotik inportatutako hondakinak.

Baldin eta kudeatu beharreko hondakinak Espainiatik kanpokoak badira, nahitaez bete beharko da Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2006ko ekainaren 14ko 1013/2006 Erregelamenduan (hondakinen lekualdaketei buruzkoa) ezarritakoa.

Gainera, aurreikusten bada zabortegian deuseztatu beharko direla inportatu beharreko hondakinak zein inportatutako hondakinen helmugako instalazioan aurreikusitako balorizatzeko- eta deuseztatze-tratamendutik lortutako korrante nabarmenen bat, orduan, kontsulta bat egin beharko zaio organo honi, justifikatuz aurreikusitako mugaz gaindiko lekualdaketak bat datozela EAeko Hondakinak Prebenitzeko eta Kudeatzeko 2030 Planean zehaztutako hondakinen inguruko plangintzaren helburuekin.

– Hondakin arriskugabeak kudeatzeko baldintza gehigarriak.

Apartatu hau aplikatuko zaie hondakin arriskugabeek, Hondakinen Kudeaketa – Baldintza Partikularrak atalean adierazitakoaren arabera.

– Fidantza jartzea.

Sustatzaileak ingurumen-baimen bateratuko Hondakinen Kudeaketa – Baldintza Orokorrak atalean ezarritako fidantza jarri beharko du, Hondakinak eta lurzoru kutsatuak arautu eta ekonomia zirkularra bultzatzeko apirilaren 8ko 7/2022 Legearen 23. artikuluko 5.b) apartatuan xedatutakoari jarraikiz. Fidantzaren zenbatekoa hondakinak tratatzeko eta biltegitratzeko gehieneko gaitasunaren arabera zehazten da.

Fidantza horren zenbatekoa urtero eguneratu ahal izango da, aurreko 12 hilabeteetako kontsumoko prezioen indizearen (KPI) arabera handituta.

Jarritako fidantza ez da itzuliko, Ingurumen Jasangarritasuneko Sailburuordetzak sustatzaileak egindako hondakin arriskutsuak kudeatzeko jarduera uztea baimendu arte edo dagokionean jarduera uzteko finkatutako baldintzak bete arte; baldintza horiek, betiere, lurzoruaren kalitate-adierazpenean ezartzen diren betekizunak barne hartuko dituzte.

– Hondakin arriskutsuen lekualdaketa kontrolatzea.

Bai ontziratzeke eta biltzeko baldintzek, bai sustatzaileak hondakin arriskutsuak errepidez garraiatzeko erabili beharreko garraio-bideek, gai horiek errepidez garraiatzeari buruzko indarrean dagoen legerian ezarritako xedapenak bete beharko dituzte.

Ebazpen honetan jasotako hondakin arriskutsuak salgai arriskutsutzat jotzen badira Salgai Arriskutsuen Errepideko Nazioarteko Garraioari buruzko Europako Akordioaren (ADR) B. eranskinaren arabera, eta hondakin horiek ibilgailu propioekin garraiatzen badira, ontziratzeke eta biltzeko baldintzek eta sustatzaileak erabili beharreko garraio-bideek salgai arriskutsuen errepideko garraioari buruz indarrean dagoen legerian ezarritako xedapenak bete beharko dituzte.

Nolanahi ere, sustatzaileak deklaraturako garraio-unitate bakoitzeko hondakin arriskutsuen kantitatearen eta salgaiak paketatzeke baldintzen arabera, xedapen horiek 1.1.3.6.2. apartatuan (kopuruengatik salbuespen partziala garraio-unitate bakoitzeko) eta 3.4 kapituluan (bilgarriagatik salbuespenak kopuru mugatuetan) ezarritakoetara mugatu ahal izango dira, puntu horietan jasotako zehaztapenak betetzen badira.

– Zamalanak.

Zamalanak egitean, substantzia arriskutsuak manipulatzeko eskatutako segurtasun-baldintzak bete beharko dira.

ATALA: LURZORUA – BALDINTZA OROKORRAK

LURZORUA ETA LURPEKO URAK BABESTEKO BALDINTZAK OROKORRAK

Sustatzaileak dokumentu bakar bat aurkeztuko du, 2020ko urtarrilaren 23ko Aginduaren bidez onetsitako jarraibide teknikoari jarraikiz, edukiei eta entrega-aldizkakotasunari dagokienez; gutxienez, 5 urtean behin.

Dokumentu bakarra, nolanahi ere, lurzoruaren kalitatea ikertu eta lehenegoratzeko lanak egin ditzakeen entitate egiaztatu batek egin beharko du, eta eduki hauek izango ditu: lurzoruaren egoerari buruzko aldizkako txostena, oinarriko txostena eta lurzoruaren eta lurpeko uren kontrola eta jarraipena egiteko agiriak.

Sustatzaileak beharrezkoak diren neurriak hartu beharko ditu aurreko lerrokadan aipaturako dokumentazioan jasotako lurzoruaren eta lurpeko uren babesa ziurtatzeko, baita Lurzorua – Baldintza Partikularrak atalean jasota egon daitezkeen neurri gehigarriak ere.

– 9/2005 Errege Dekretua, urtarrilaren 14koa, lurzorua kutsa dezaketen jardueren zerrenda eta kutsatutako lurzoru deklaratzeko irizpide eta estandarrak ezartzen dituena.

– 815/2013 Errege Dekretua, urriaren 18koa, zeinaren bidez onartzen baita Kutsaduraren Prebentzio eta Kontrol Integratuari buruzko uztailaren 1eko 16/2002 Legea garatzeko Erregelamendua —zeina, aldi berean, industriako emisioei buruzkoa baita—.

– 4/2015 Legea, ekainaren 25koa, Lurzorua Kutsatzea Saihestu eta Kutsatutakoa Garbitzekoa.

– 1/2016 Legegintzako Errege Dekretua, abenduaren 16koa, Kutsaduraren Prebentzio eta Kontrol Integratuari buruzko Legearen testu bategina onartzen duena.

– Agindua, 2020ko urtarrilaren 23koa, Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitzako sailburuarena, zeinaren bidez jarraibide tekniko bat onartzen baita, Kutsaduraren prebentzio eta kontrol integratuari buruzko Legearen testu bategina onartzen duen abenduaren 16ko 1/2016 Legegintzako Errege Dekretuan xedatutakoa interpretatzeari eta aplikatzeari buruzkoa, lurzoruaren eta lurpeko uren egoera zehazteko oinarrizko txosten bat eskatzeari lotua.

– Lur-mugimenduak.

Sustatzaileak baldintza hauek bete beharko ditu instalazioetan egindako aldaketek eragindako lur-mugimenduei dagokienez:

1.– Instalazioa baimenduta dagoen lurzatiaren barruan lurrak mugitzea dakarren aldaketa bat aurreikusiz gero:

Ekainaren 25eko 4/2015 Legearen 25. artikuluko 1.c apartatuari jarraikiz, induskatu beharreko materialak (lurrak, eraiste-hondakinak eta abar) karakterizatu egin beharko ditu jardueraren sustatzaileak, ekintza kutsatzaileen ondorioz erasan zaien ala ez egiaztatzearen, eta, karakterizazio horren emaitzen arabera, horiek kudeatzeko modu egokiena zehaztearren.

Baldin eta jarduketa horretan aurreikusten bada induskatu beharreko materialen bolumena 500 m³-tik gorakoa dela (zolatak barne), edo jarduketak dirauen bitartean gainditze hori antzematen bada, nahitaezkoa izango da indusketa selektiborako plan bat aurkeztea, lurzoruaren kalitatea ikertzeko eta leheneratzeko egiaztatuta dagoen entitate batek eginga. Indusketa-planak abenduaren 26ko 209/2019 Dekretuaren IV. eranskinean adierazitako edukia jaso beharko du, eta ingurumen-organoak onartu beharko du, gauzatu aurretik.

Induskatu beharreko bolumena 500 m³-tik beherakoa bada, aldaketaren jakinarazpenak honako informazio hau jaso beharko du:

– Jarduketaren pertsona fisiko edo juridiko sustatzailearen eta jarduketa burutuko duen kontratadunaren identifikazioa.

– Jarduketak ukituko duen lekuaren kokapen-datuak, Lurzoruaren Kalitatearen Administrazio Erregistroaren erreferentzia barne hartuta.

– Jarduketaren xede den eremuaren mugaketa eta azalera. Jakinarazpenean, lurzattia eta jardueraren eremua zehatz-mehatz non dauden jakitea ahalbidetzen duten planoak erantsiko dira.

– Jardueraren deskribapen xehatua.

– Induskatuko diren materialen bolumena, zolatak barne.

– Ingurumen-jarraipeneko lanen eta azken txostena egitearen arduradunaren identifikazioa; artikuluko honetan aipatutako kasuetan erakunde egiaztatua izan beharko du.

– Jarduera hasteko aurreikusitako datak.

Aurreko kasuetako edozeinetan, obra egin ondoren, azken txostena bidali beharko du. Bertan, lurren karakterizazioaren emaitzak adierazi beharko dira; horrez gain, induskatutako materialen berrerabilera edo kudeaketa egokia egiaztatze txosten bat ere bidali beharko da. Indusketaren bolumena 100 m³-tik gorakoa bada, entitate egiaztatuta batek egingo ditu ingurumen-jarraipenerako lanak eta txostena.

Arau orokor gisa, Kutsatutako lurzoruaren indusketa selektiboak egiteko gidan jasotzen diren irizpideak beteko dira. Esteka honetan eskura daiteke gida:

<https://www.ihobe.eus/argitalpenak/kutsatutako-lurzoruetan-indusketa-selektiboak-egiteko-gida>

Soberakinak hondakindegian biltegitratuz hustu nahi izanez gero, hondakinak hondakindegietan biltegitratuta eta betelanak eginda ezabatzea arautzen duen otsailaren 24ko 49/2009 Dekretuak ezarritakoari jarraikiz egingo da hondakinen karakterizazioa. Oro har, laginketa egiteko, abenduaren 26ko 209/2019 Dekretuaren IV. eranskinean eta gidaren 10.2.6 apartatuan («Induskatu behar diren lurzoruetan *in situ* egindako laginketa») biltzen diren induskatu beharreko materialen karakterizazio-kanpaina diseinatzerakoan kontuan hartu behar diren oinarrizko irizpideei jarraituko zaie.

Soberako materialak instalazio berean berrerabili ahal izateko, balio hau izan beharko dute material horiek: Lurzorua Kutsatzea Saihestu eta Kutsatutakoa Garbitzeko ekainaren 25eko 4/2015 Legean ezarritako B-EBA (industria-erabilera) balioaren azpikoa. Horrez gain, lur horien hidrokarburo-edia ezin izango da arriskutsua izan. Horretarako, entitate egiaztatu batek egin beharko ditu laginketa eta analisia, honen arabera: 199/2006 Dekretua, urriaren 10ekoa, Lurzoruaren kalitatea ikertu eta berreskuratzeko entitateak egiaztatzeke sistema ezartzen duena, eta entitate horiek lurzoruaren kalitatearen gainean egindako ikerketen edukia eta norainokoa zehazten dituen.

Lur garbitzat hartuko dira ekainaren 25eko 4/2015 Legean ezarritako A-EBA balioak baino txikiagoak eta TPHetarako 50 mg/kg baino balio txikiagoak dituzten lurrak, eta, beraz, onartu egingo dira baimendutako betelanerako.

Substratu harritsu osasuntsua murrizketarik gabe kudeatu ahal izango da. Lurzoru naturalaren parekoa den substratu harritsu meteorizatuaren kasuan, aurreko puntuetan ezarritako irizpidea beteko da.

2.– Instalazioa baimenduta dagoen lurzatitik kanpo aldaketaren bat egitea aurreikusi bada (lurzoru berria okupatuz), eta okupatu nahi den lurzoru berriak lehenago izan badu ekainaren 25eko 4/2015 Legearen I. eranskinean aipatutako jardueraren bat, sustatzaileak lurzoruaren arloko adierazpen bat lortu beharko du egin nahi diren aldaketak egiten hasi aurretik.

Horretaz gainera, ekainaren 25eko 4/2015 Legearen 22. artikuluko 2. apartatuan dioenaren arabera, lurraren kutsadura-aztarnak aurkitzen badira, horren berri eman beharko zaie dagokion udalari eta ingurumen-organoari, hark ezar ditzan hartu beharreko neurriak, aipatutako 4/2015 Legearen 23. artikuluko 1.e apartatuari jarraikiz betiere.

ATALA: ZARATA – BALDINTZA OROKORRAK

ZARATAREN INGURUKO BALDINTZA OROKORRAK.

Zarata – Baldintza Partikularrak atalean ezarritako indize akustikoak ez gainditzeko beharrezkoak diren neurriak ezarriko dira.

Jardueraren zuzeneko edo zeharkako eraginez zaratarentzat ezarritako kalitate akustikoaren helburuak gainditzen direnean, hain zuzen ere, Zaratari buruzko azaroaren 17ko 37/2003 Legean garatzen den zonakatze akustikoari, kalitate-helburuei eta emisio akustikoei buruzko urriaren 19ko 1367/2007 Errege Dekretuaren 14. eta 16. artikuluetan adierazten direnak, jarduerak beharrezkoak diren neurriak hartu beharko ditu helburu horiek gainditu ez daitezten.

Zamalanetako jarduerak eta materialak kamioietan garraiatzeko jarduerak egitean sortzen den zarata ezingo da izan sentikortasun akustiko handieneko eremuetako ingurumen-maila baino askoz handiagoa.

– Zarataren kontrola.

Jarduera garatzen den lurzatiko kanpoko baldintza akustikoak Zarata – Baldintza Partikularrak atalean ezarritako maiztasunarekin kontrolatuko dira, batez ere zarata etxe barruetara sartzeko arriskurik handiena dagoen aldeetan.

Neurketa bidezko ebaluazio guztiak II. mailako Ingurumen Lankidetzako Erakunde (ILE) batek egin beharko ditu urriaren 16ko 212/2012 Dekretuan ezarritakoarekin bat etorriz. Erakunde horrek UNE-EN ISO/IEC 17025 arauaren arabera egiaztagiria eduki beharko du akustikaren arloan espazio- eta denbora-laginketa egiteko. Nolanahi ere, ingurumen-organoak zainduko du ebaluazio horiek egiten dituzten entitateek gaitasun tekniko egokia dutela.

Sustatzaileak beharrezkoak diren neurriak hartu beharko ditu, instalazioak kanpoko ingurumenera zabaldu ez ditzan Zarata – Baldintza Partikularrak atalean muga-balio gisa ezarritako zarata-mailak baino handiagoak; muga-balio horiek Euskal Autonomia Erkidegoko Hots-kutsadurari buruzko urriaren 16ko 213/2012 Dekretuaren II. eranskineko prozedurei jarraikiz ebaluatzen dira.

Lokal mugakideak egonez gero, lokal horien erabilera kontuan hartuta, instalazioak ezingo du aipatutako urriaren 16ko 213/2012 Errege Dekretuaren I. eranskineko G eta H tauletan ezarritako gehieneko balioak baino zarata-maila handiagoa transmititu haietara.

Ezarritako zarata-immisioaren muga-balioak errespetatzen direla joko da baldin eta, aipatutako urriaren 16ko 213/2012 Dekretuaren II. eranskinean ezarritako prozeduren arabera, ebaluatutako adierazle akustikoen balioek, urtebeteko epean, honako baldintza hauek betetzen badituzte:

- Urteko batez besteko balioek ez dituzte gainditzen aipatutako I. eranskineko F taulak ezarritako balioak.
- Eguneroko balioek ez dituzte 3 dB-tan gainditzen aipatutako I. eranskineko F taulak ezarritako balioak.
- L_{keq}, T_i indizean neurtutako ezein balioek ez ditu 5 dB-tan gainditzen aipatutako I. eranskineko F taulan adierazitako balioak.

Zamalanetako jarduerak eta materialak kamioietan garraiatzeko jarduerak egitean sortzen den zarata ezingo da izan sentikortasun akustiko handieneko eremuetako ingurumen-maila baino askoz handiagoa.

Edonola ere, ebaluazio-metodoak eta -prozedurak eta ebaluazio horiei buruzko txostenak ingurumen-organo honek emandako jarraibide teknikoetan ezarritakora egokituko dira.

Jardueraren kontrolean sortutako dokumentazioa ingurumen-organoari igorriko zaio, Ingurumena Zaintzeko Programa – Baldintza Orokorrak atalean adierazitakoaren arabera.

ATALA: INGURUMENA ZAINTEKO PROGRAMA – BALDINTZA OROKORRAK

INGURUMENA ZAINTEKO PROGRAMAREN BALDINTZA OROKORRAK

- Ingurumena zaintzeko programa.

Ingurumena zaintzeko programa sustatzaileak aurkeztutako agirietan eta apartatu hauetan ezarritakoaren arabera gauzatu beharko da.

- Emaitzak kontrolatzea eta bidaltzea.

Oro har, web-orri honetan eskura dagoen *Ingurumena zaintzeko programa bidaltzea* gidaliburuko jarraibideak bete beharko dira:

https://www.euskadi.eus/contenidos/documentacion/guias_ingurunet/eu_def/adjuntos/pva.pdf

Ingurumena zaintzeko programa osatzen duten txostenen eta azterketen emaitzak behar bezala erregistratu behar dira, eta ingurumen-organo honetara bidali, Industria, Trantsizio Energetiko eta Jasangarritasunaren Sailaren webgunean («Ingurumena Zaintzeko Programa bidaltzea») ezarrita dagoen bidalketa-prozedura telematikoari jarraikiz. Web-orriko «Tramitazioa» ataletik sartzen da prozedura horretara:

<https://www.euskadi.eus/baimena/ibb-ippc/web01-tramite/eu/>

Edonola ere, prozedura horretako «Dokumentuak» apartatuko jarraibideak, ereduak eta kodifikazioak jarraitu beharko dira.

Ezarritako baldintzak urratzen diren kasuetan bidali beharko da berehalako jakinarazpena ingurumen-organora, gertatutakoaren berri izan ondoren; horretarako, helbide elektronikoa hau erabili beharko da: ippc@euskadi.eus.

Horretaz gainera, urtean behin baino gehiagotan egiten diren kontrolak kontrola egiten den urteari dagokion programaren barruan baino ez dira bidaliko.

Kontrolak egiten diren urtearen ondorengo urteko martxoaren 31 baino lehenago bidali beharko dira. Zaintza-programako emaitzekin batera, txosten bat bidali beharko da. Txosten horretan jasoko dira babes- eta zuzenketa-neurrien eta prozeduren kontrolerako eta ingurumenaren kalitaterako sistemen funtzionamendua eta emaitzen analisia, epe horretan izandako gorabehera nagusiak bereziki aipatuta, haien balizko kausa eta konponbideak azalduz; halaber, laginak nola hartu diren zehaztuko da, aldeztatik hala egin ez bada.

– Ingurumena zaintzeko programaren agiri bategina.

Sustatzaileak ingurumena zaintzeko programaren agiri bategina egin beharko du, eta bertan bildu beharko ditu aurkeztutako dokumentazioan proposatutako betebeharrak eta ingurumen-baimen bateratu honetan jasotakoak. Programa horrek honako hauek zehaztu beharko ditu: kontrolatu beharreko parametroak, parametro bakoitzerako erreferentzia-mailak, analisi edo neurketen maiztasuna, laginketak eta analisiak egiteko teknikak, eta laginak hartzeko puntuen kokapen zehatua. Halaber, dagokion aurrekontua ere barne hartu beharko du.

Era berean, ingurumena zaintzeko programak jaso beharko du jardueraren adierazleak zehaztu eta adierazle horiek aztertzeko sistematika, adierazle horien arabera enpresan bertan ingurumen-hobekuntza ziurtatzearen ezarritako neurri eta mekanismoen eraginkortasuna egiaztatu ahal izateko (ingurumen-adierazleak).

ATALA: EZOHIKO EGOERAK – BALDINTZA OROKORRAK

PREBENTZIO-NEURRIEI ETA EZOHIKO EGOERETAN FUNTZIONATZEKO BALDINTZEI BURUZKO BALDINTZA OROKORRAK

– Instalazioa geldiarazteko eta martxan jartzeko eragiketarako eta mantentze-lanen eragiketa programatuak.

Programatutako urteko mantentze-lanei dagokienez, sortuko diren emisioen eta hondakinen estimazio bat egin beharko du enpresak, eta, dagokionean, haiek kudeatzeko eta tratatzekoa ere bai.

Instalazioa geldiaraztean nahiz abiaraztean, mantentze-eragiketetan eta ohiz kanpoko egoeretan sortutako hondakinak kudeatu beharko dira, Hondakinak sortzea - Baldintza Partikularrak eta Hondakinak sortzea -Baldintza Orokorrak ataletan ezarritakoarekin bat etorriz.

– Jarduera etetea eta aurretiazko jarduketak.

Ingurumen Erantzukizunari buruzko urriaren 23ko 26/2007 Legearen eta Kutsaduraren eta narriaduraren aurkako lurrazpiko uren babes arautzen duen urriaren 2ko 1514/2009 Errege Dekretua ezertan eragotzi gabe, baita lurzorua babesaren arloko legeak ezertan eragotzi gabe ere, sustatzaileak honako apartatu hauetan ezarritako baldintzak bete beharko ditu.

– Jarduerak behin betiko eten ondoren, titularrak lurzorua nola dagoen eta instalazioak erabilitako, ekoiztiko edo zabalduko gai arriskutsu garrantzitsuek lurpeko uretan zer-nolako kutsadura eragin duten ebaluatuko du, eta organo honi emango dio ebaluazio horren emaitzen berri. Ebaluazioak erabakitzen badu instalazioak lurzoruaren edo lurpeko uren kutsatze aipagarria eragin duela lurzoruaren kalitatea adierazteko izapidean egindako lurzoruaren kalitatearen ikerketa-txostenetan ezarritako egoerarekin alderatuta, titularrak neurri egokiak hartuko ditu kutsadura horri aurre egin eta instalazioak egoera hartan berriz jartzeko, aipatu urriaren 23ko 26/2007 Legearen II. eranskineko arauei jarraikiz.

– Nolanahi ere, jardueren behin betiko etena gertatu ondoren, sustatzaileak gai arriskutsu guztiak kendu eta instalazioetan dauden hondakin guztiak kudeatu beharko ditu, behin betiko ixtean lekua garbi geratzeko, eta instalazioan geratutako hondakin guztiak kudeatzaile baimendu bati emateko. Orobat bermatuko da lekuak ez duela arrisku aipagarriarik sortzen pertsonen osasunarentzat eta ingurumenarentzat, jarduera dela-eta lurzorua eta lurpeko urak kutsatzearen ondorioz.

– Jarduerari lege hauek aplikatu behar zaizkio: 4/2015 Legea, ekainaren 25ekoa, lurzorua kutsatzea saihestu eta kutsatutakoa garbitzekoa, eta 9/2005 Errege Dekretua, urtarrilaren 14koa, kutsadura sor dezaketen jardueren zerrenda eta lurzoru kutsatuen adierazpenerako irizpide eta estandarrik ezartzekoa. Horrenbestez, sustatzaileak jarduera uzte horren berri eman beharko dio ingurumen-organuari, bi hilabeteko epea agortu baino lehen; jakinarazpen horrekin batera, jarduketaren proposamen bat ere aurkeztu beharko da, organo horrek ezar dezan noraino iristen diren bere betebeharrak eta lurzoruaren kalitatea deklaratzeko prozedura hasteko epea noiz hasiko den beranduenez, ekainaren 25eko 4/2015 Legearen 31.3 artikuluan xedatutakoari jarraikiz.

Arauari dagokion jarduera-kodea Ezohiko Funtzionamendua – Baldintza Partikularrak atalean ezartzen da.

Jarduera bertan behera utzi baino lehen, sustatzaileak instalazioetan dauden hondakin guztiak kudeatu beharko ditu, Hondakinak sortzea – Baldintza Partikularrak eta Hondakinak sortzea – Baldintza Orokorrak ataletan ezarritakoari jarraikiz.

– Jarduera aldi baterako etetea.

Jarduera aldi baterako etetea eskatuz gero, Industriako Isurketen Erregelamendua onesten duen urriaren 18ko 815/2013 Errege Dekretuaren 13. artikuluan arautu bezala, sustatzaileak, aldi baterako etetearen eskabidearekin batera, dokumentu bat bidali beharko du lantegia jardunik gabe egonda ere aplikagarriak zaizkion ingurumen-baimen bateratuan ezarritako kontrolak eta eskakizunak nola beteko dituen adierazteko.

Era berean, jarduera berriz hasi baino lehen, instalazioek egokiro funtzionatzen dutela ziurtatu beharko da, ingurumenean eragina duen isurketa edo emisio oro saihesteko.

– Funtzionamendu anomalorako prebentzio-neurriak eta jarduerak.

Aurkeztutako agirietan egindako proposamenean, ezohiko egoeretan aplikatu beharreko prebentzio-neurriak eta funtzionamendurako baldintzak zehazten dira. Horiez gain, apartatu hauetan aipatzen diren baldintzak bete beharko dira:

Instalazioen mantentze-lan prebentiboak.

– Prebentzioko mantentze-lanen eskuliburua eduki beharko da instalazioen egoera ona bermatzeko, batez ere istripuz isurketak edo ihesak daudenean, kutsadura ekiditeko eskuragarri dauden baliabideei eta ezarritako segurtasun-neurriei dagokienez. Isuri-ihesak daudenean lurzorua babesteko hartu beharreko neurriak zehaztuko dira, eta zehatz adieraziko da hauei dagokien guztia: eraikuntzako materialak (iragazgaiztea), biltegitratzeko neurri bereziak (gai arriskutsuak), egon daitezkeen isuri-ihesak antzemateko neurriak edo gainbetetzerako alarma-sistemak, fabrikako

kolektore-sarea zaindu eta garbitzekoak (sistematikoki garbitzeko beharra, maiztasuna, garbiketa mota), eta lurzorua gaineko jarioak biltzeko sistemak. Era berean, kutsadura atmosferikoaren prebentzio- eta zuzenketa-sistemak (arazketa, minimizazioa, eta abar) egoera onean daudela bermatuko duten neurriak hartuko dira.

– Aurreko lerrokadan adierazitako eskuliburuak ikuskaritza eta kontrolerako programa bat jaso beharko du, hauek bilduko dituena: estankotasun-probak, mailen eta adierazlearen egoera, balbulak, presioa arintzeko sistema, hormen egoera eta lodieren neurketa, tangen barnealdearen begizko ikuskapenak (hormena eta estaldurena) eta kubetetako detekzio-sistemen aldizkako kontrol sistematikoa, lurzoru kutsa dezakeen edozein egoerari aurrea hartzeko.

– Era berean, airearen eta ur-ingurunearen kutsadura prebenitzeko eta zuzentzeko sistemen (arazketa, minimizazioa eta abar) eta zaintza eta kontrolerako sistemen egoera ona bermatzeko neurriak jaso beharko dira.

Era berean, erregistro bat eduki behar da, eta bertan, aldizka egindako mantentze-lanen berri eman behar da, baita antzemandako gertaeren berri ere. Erregistroa Ingurumena Zaintzeko Programa – Baldintza Orokorrak eta Ingurumena Zaintzeko Programa – Baldintza Partikularrak ataletan jasotako jarraibideei jarraikiz bidaliko da.

Pabilioen barruan zolak garbitzean sortutako urak tratamendu-lineara bidaliko dira edo, bestela, kudeatzaile baimendu batek kudeatuko ditu.

Hondakin-urak ezingo dira bypass bidez isuri arazketa-instalazioetan.

Programatutako mantentze-lanetan derrigorrez bypass bidez isurketak egin behar badira, titularrak ingurumen-organo honi jakinaraziko dio aurretiaz, segurtasun-neurrien eta isurketak ingurune hartzailearen kalitatearen gainean duen eragina ahal den neurrian gutxitzeko neurrien funtzionamendua zehaztuz. Bypass horretan aurreikusi gabeko isurketaren bat gertatzen bada, titularrak segurtasun-neurrien funtzionamendua egiaztatu beharko du, dagokion txostena ingurumen-organo honi bidalita (atal honetako «Gorabeheraren bat gertatuz gero, agintariei jakinaraztea» puntuan adierazitakoari jarraituz).

Besteak beste, erabilitako olioak, efluenteen arazketako hondakinak, eta, orokorrean, fabrian sortutako hondakinak maneiatzean, baliteke lurzoru eta ura kutsatzea. Beraz, isurketak, jarioak edo ihesak gertatzeko arriskua duten lurzatien gainazal guztiak iragazgaitzuko dira.

Hauts-itxurako produktuak biltegitartzeko, zulo itxiak edo hautsa xurgatzeko sistemak dituzten pabiloi estali eta itxiak eduki beharko dira.

Prozesurako behar diren lehengaiak, erregaiak eta produktuak ingurunean ez sakabanatzeko moduan biltegitratuko dira.

Segurtasun-tarteei eta babes-neurriei dagokienez, biltegitartzeko instalazio horiek produktu kimikoak biltegitartzeari buruz indarrean dagoen araudian ezarritako betebeharrak bete beharko dituzte.

Larrialdi-egoeran berehala eta eraginkortasunez jarduteko beharrezko diren material guztien behar besteko kantitatea eduki beharko da: berriro ontziratzeke erreserbako edukiontzia, beharrezkoa izanez gero; gerta daitezkeen isuriei aurre egiteko produktu xurgatzaile selektiboak; segurtasuneko edukiontzia, kaltetutako ingurunea isolatzeko hesiak eta seinaleztapen-elementuak, eta babes pertsonalerako ekipo egokiak.

Jarduketa, gorabeheraren bat gertatuz gero.

Jarduteko protokolo bat eduki behar da, ingurunean eragin negatibo garrantzitsuak eragin ditzaketen gorabeherak edo anomaliak gertatuz gero erabiltzeko. Protokoloak gutxienez gai hauek zehaztu behar ditu argi eta garbi, gerta daitezkeen gorabehera edo anomalia bakoitzerako:

– Egin beharreko jarduketak, hurrengo apartatuan zehazten den jakinarazpena agintariei helaraztea barne hartuta.

– Jarduketan segida.

– Jarduketa bakoitzaren arduraduna(k).

Istripuz isurketarik gertatuko balitz, berehala geldiaraziko da.

Gorabeheraren edo ez-betetzeren bat gertatuz gero agintariei jakinaraztea:

Ingurunearen edo jardueraren kontrolaren gainean kalteak eragin ditzakeen gorabeheraren edo ezohiko gertaeraren baten aurrean, sustatzaileak berehala eman beharko dio gorabehera edo ezohiko gertaera horren berri ingurumen-organoari (zuzentzeko edo eusteko neurri egokiak hartu ondoren), horretarako ezarritako helbide elektronikoa hau baliatuz: ippc@euskadi.eus. Jakinarazpenean, alderdi hauek adierazi beharko dira gutxienez:

– Gorabehera mota.

– Jatorriak eta kausak (unean zehaztu daitezkeenak).

– Berehala aplikatutako zuzenketa- edo euste-neurriak.

– Sortutako ondorioak.

– Epe laburrera aurreikusitako jardunak, halakorik balego.

Gorabehera edo arazo larriren bat izanez gero, eta, betiere istripuz izandako emisio edo isuriren bat egonez gero, berehala jakinarazi beharko zaie SOS DEIAK zerbitzuari eta instalazioa non dagoen kontuan hartuta dagokion udalari. Ondoren, gehienez ere 48 orduko epean, istripuaren ondorioz sortutako egoera zehatz-mehatz jasotzen duen txosten bat bidali beharko zaio ingurumen-organoari. Txosten horretan, datu hauek agertuko dira gutxienez:

– Gorabehera mota.

– Jazoera non, zergatik eta zer ordutan gertatu zen

– Gorabeheraren iraupena.

– Istripuz isurketarik gertatuz gero, emaria eta isuritako gaiak eta ingurune hartzailean antzeman daitezkeen eragina zehaztu beharko dira, haren analisisa barne hartuta.

– Mugak gaindituz gero, emisioei buruzko datuak.

– Eragindako kalteen zenbatespena.

– Hartutako neurri zuzentzaileak.

– Ezohiko gertaera berriro ez gertatzeko prebentzio-neurriak.

– Prebentzio-neurriak eraginkortasunez aplikatzeko aurreikusitako epeak.

Baimenaren baldintzak urratzen dituen isurketa gertatzen bada eta, gainera, pertsonen osasunerako arriskutsua bada edo sistema naturalen orekari modu larrian kalte egin badiezaioke, titularrak berehala etengo du isuri hori, eta, horrez gain, gertaeraren berri eman beharko die Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioako Uraren Euskal Agentziari eta babes zibilaren eta ingurumenaren arloan ardurak dituzten organismoak, baita SOS DEIAK (112) larrialdi-zerbitzuei ere, behar diren neurriak har ditzaten.

Aurreko apartatuan ezarritakoaz gain, gerta daitezkeen gorabeherak edo arazoak saiheste aldera, jardueraren titularrak berehala jakinarazi beharko dio Ingurumen Jasangarritasunaren Sailburuordetzari instalazioko edozein etenaldi programatu izango dela, prozesu etengabe batekoa bada, baita aurreikusitako mantentze prebentiboak ere, ahalik eta denbora-tarte handienarekin.

Larrialdi-egoeretan, babes zibilari buruzko araudian ezarritakoa bete beharko da, eta araudi horretan ezarritako baldintza guztiak bete beharko dira.

Ingurumen-baimen bateratua bete ezean, sustatzaileak behar diren neurriak hartu beharko ditu betetzea ahalik eta lasterren gertatuko dela berriz ziurtatzeko.

ATALA: PRTR – BALDINTZA OROKORRAK

PRTR-AREN INGURUKO BALDINTZA OROKORRAK

Urtean behin, martxoaren azken eguna baino lehenago, eta jarduerak errekuntza-instalazio handizat jotako fokuren bat badu, martxoko azken eguna baino lehen, sustatzaileak aurreko urteko emisio atmosferikoei eta uretara egindako isuriei eta sortutako hondakin mota guztiei buruzko datuen ingurumen-adierazpena igorriko dio ingurumen-organoari, E-PRTR-Euskadi Kutsatzaileen Emisio eta Transferentzia Inbentarioa egiteko eta eguneratuta edukitzeko 508/2007 Errege Dekretuarekin bat etorritik.

Informazio hori bidaltzeko, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorra eskura jarritako kanal, sistema edo aplikazio informatikoak erabiliko dira.

Datu horietako batzuk Ingurumenean Eragina duten Jardueren Euskal Autonomia Erkidegoko Erregistroan sartuko dira; gero, Europako Ingurumen Agentziaren Erregistroa (Europako E-PRTR Erregistroa) bidaliko da informazio hori.

Ingurumen-adierazpena publikoa izango da, bat etorritik uztailaren 18ko 27/2006 Legearen xedapenekin. Lege horren bidez, informazioa eskuragarri izateko, herritarren partaidetzarako eta ingurumen-gaietan justizia eskura izateko eskubideak arautzen dira (2003/4/EE eta 2003/2005/EE zuzentarauak jasotzen ditu). Horrez gain, une oro bermatu beharko da Datu Pertsonalak Babesteko eta Eskubide Digitalak Bermatzeko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoan ezarritakoa betetzen dela.

ATALA: INGURUMEN-ERANTZUKIZUNA – BALDINTZA OROKORRAK

INGURUMEN-ERANTZUKIZUNAREN INGURUKO BALDINTZA OROKORRAK.

– Ingurumen-erantzukizuna.

Baimeneko baldintza partikularretan instalazioa ingurumen-erantzukizuneko araudiaren esparruan kokatzen bada (arauaren III. eranskina) sustatzaileak bere jarduera profesionalaren ingurumen-arriskuen azterketa egin beharko du, abenduaren 22ko 2090/2008 Errege Dekretuaren 34. artikuluan ezarritakoaren arabera (zeinaren bidez onartzen baita Ingurumen Erantzukizunari buruzko urriaren 23ko 26/2007 Legea zati batean garatzen duen Erregelamendua), finantza-bermea eratu behar duen ebaluatzeko, 26/2007 Legearen 24. artikuluekin bat etorritik. Finantza-bermea eratu ondoren, erantzukizunpeko adierazpen bat aurkeztu beharko dio agintaritzari eskudunari, eta adierazpen horrek 2090/2008 Errege Dekretuaren IV.1 eranskinean adierazitako informazioa jaso beharko du gutxienez. 26/2007 Legearen 28. artikuluko a) eta b) apartatuetan adierazitako salbuespenei jarraikiz jarduera finantza-bermea eratzetik salbuetsita badago, erantzukizunpeko adierazpena aurkeztu beharko dio agintaritzari eskudunari; adierazpen horretan, IV.2 eranskinean adierazitako informazioa jasoko da gutxienez. Apartatu honetan eskatutako agiriak ingurumen-organoan aurkeztuko dira, teletramitaziorako ezarritako aplikazioa erabiliz, eta, zehazki, «Ingurumen-erantzukizunari aurre egiteko finantza-bermearen jakinarazpena – MARMA» izeneko prozeduraren bidez.

Sustatzaileak ingurumen-arriskuen azterketa eguneratuko du, egoki irizten dion guztietan eta, betiere, ingurumen-arriskuen aurreko analisietan aurreikusitako erreferentziako istripu-egoera aldatzen duen jardueran edo instalazioan aldaketak gertatzen direnean edo baimen substantiboan funtsezko aldaketa bat gertatzen denean. Araua aplikatuz dagokion finantza-bermearen nahitaezko gutxieneko zenbatekoa urtero eguneratuko da, KPlaren arabera. Ingurumen-arriskuen azterketaren eguneraketak kasuan kasuko MARMA prozedurako dokumentazioaren barnean aurkeztuko dira.

Jardueraren operadoreak ingurumen-kalteak prebenitzeko, saihesteko eta konpontzeko neurriak hartu eta betearazi behar ditu, eta haien kostuak ordaindu behar ditu, zenbatekoa edozein dela ere, baita dolorik, errurik edo zabarkeriarik ez bada ere, Ingurumen Erantzukizunari buruzko urriaren 23ko 26/2007 Legearen 19.1 artikuluan adierazten den bezala. Era berean, sustatzaileak ingurumen-organoari berehala jakinarazi beharko dio ingurumenean kalteak izan direla edo kalte horiek eragiteko arriskua dagoela, gertatuak zein gertatzeke.

– Ingurumeneko finantza-bermearen kontrola.

Finantza-bermea eratu behar izanez gero, indarrean dagoen aseguru-polizaren kopia edo eratutako finantza-bermearen motaren ziurtagiria aurkeztu beharko da. Araua aplikatuz dagokion finantza-bermearen nahitaezko gutxieneko zenbatekoa urtero eguneratuko da, KPlaren arabera.

Ingurumeneko finantza-bermea eratzetik salbuetsita egonez gero eta 300.000 eta 2.000.000 euro bitarteko zenbatekoarekin konpon daitezkeen kalteen erantzule diren operadoreak izanez gero (Ingurumen Erantzukizunari buruzko urriaren 23ko 26/2007 Legearen 28.b artikulua), organismo independenteek emandako ziurtagiriaren kopia aurkeztuta egiaztatu beharko dute etengabe eta era jarraituan atxikita daudela Europar Batasunaren ingurumen-kudeaketako eta ikuskaritzako sistemari (EMAS) edo indarrean dagoen UNE-EN-ISO 14001 ingurumen-kudeaketarako sistemari.

Dokumentazio guztia Ingurumena Zaintzeko Programa – Baldintza Orokorrak eta Ingurumena Zaintzeko Programa – Baldintza Partikularrak ataletan jasotako jarraibideen arabera bidali beharko da.

BALDINTZA PARTIKULARREN ERANSKINA, LITOGRAFÍA ALAVESA SLU-K OION UDALERRIAN (ARABA) SUSTATZEN DUEN METALAK TRATATZEKO ETA GAINESTALTZEKO JARDUERA

Sustatzaileak baldintza hauek bete beharko ditu jarduera ustiatzeko eta eteteko:

- Ingurumen-baimen bateratuaren baldintza partikular guztiak.
- Baldintza partikularren atala duten baldintza orokorrak bakarrik.

Nolanahi ere, baldintza partikularrak gailenduko zaizkie baldintza orokorrei.

ATALA: AIREA – BALDINTZA PARTIKULARRAK

AIREAREN KALITATEA BABESTEKO BALDINTZA PARTIKULARRAK

– Atmosfera kutsa dezaketen jardueren identifikazioa: Katalogazioa. Fokuak.

Instalazioan atmosfera kutsa dezaketen jarduera hauek egiten dira:

Kodea	Taldea	Jarduera	Deskribapena
06 01 08 01	A	Margo- edo estaldura-aplikazioak industriak aurreko epigrafeetan jasota ez daudenak disolbatzailea kontsumitzeko gaitasun honekin: > 200 t/urte edo 150 kg/ordu.	Metalezko xaflak bernizatzea.
06 04 12 03	C	Aurreko epigrafeetan jaso ez diren beste jarduera batzuk, disolbatzailea kontsumitzeko gaitasun honekin: ≤ 200 t/urte edo 150 kg/ordu eta > 15 t/urte	Xafla metalikoen litografia.
06 02 01 04	-	Metalezko gainazalak garbitzea (koipegabetzea barne), disolbatzailea kontsumitzeko gaitasun honekin:	Ikuztegia

Atmosfera kutsa dezaketen jarduerak emisio-iturri hauek sortzen dituzte:

Foku-zenbakia	Fokuaren kodea	Emisio-fokuaren izena	Atmosfera kutsa dezaketen jarduerak	Arazketa-sistema(k)	Altuera (m)	Diametroa (m)	Funtzionamendu-arabidea
1	001000489-01	B1 B3 (lehen M3) eta B5 (lehen M5) bernizatze-lineak M2 eta M4 litografia-lineak (bernizatze faseak lehortzea)	06 01 08 01 A	Oxidazio termiko birsortzailea (OTR 1).	12	0,8	Sistematikoa
2	001000489-02	B2 B4 bernizatze-linea (lehen M4)	06 01 08 01 A	Erraustegia	10	0,5	Sistematikoa
3	001000489-03	B3 Labe-kola, B4 bernizatze-linea lehortzea (lehen M4)	06 01 08 01 A	-	10	0,4	Sistematikoa
4	001000489-04	B3' Labe-kola, B5 bernizatze-linea lehortzea (lehen M5)	06 01 08 01 A	-	10	0,4	Sistematikoa
5	001000489-05	B4 Labe-kola, B3 bernizatze-linea lehortzea (lehen M3)	06 01 08 01 A	-	10	0,4	Sistematikoa

2025eko urtarrilaren 22a, asteazkena

Foku-zenbakia	Fokuren kodea	Emisio-fokuren izena	Atmosfera kutsa dezaketen jarduerak	Arazketa-sistema(k)	Altuera (m)	Diametroa (m)	Funtzionamendu-araubidea
6	001000489-06	B5 Labe-kola, Sprint inprimagailuaren litografia lehortzea (bernizatze fasea lehortzea)	06 01 08 01 A	-	11	0,4	Sistematikoa
7	001000489-07	B6 Labe-kola, Tandem 2 bernizatze-linea lehortzea	06 01 08 01 A	-	10	0,4	Sistematikoa
8	001000489-08	L1 Tintaren ezarpena M2 litografia-linean	06 04 12 03 C	-	10	0,42*0,24	Sistematikoa
16	001000489-16	N1 Ikuztegia	06 02 01 04 -	-	-	-	Ez-sistematikoa
19	001000489-19	B7 Tandem 1 bernizatze-linea	06 01 08 01 A	Erraustegia	10	0,5	Sistematikoa
20	001000489-20	B8 Labe-kola, Tandem 1 bernizatze-linea lehortzea	06 01 08 01 A	-	9,5	0,5	Sistematikoa
21	001000489-21	B9 Labe-kola, M2 litografia-linea lehortzea (bernizatze fasea lehortzea)	06 01 08 01 A	-	10	0,44	Sistematikoa
22	001000489-22	B10 Tandem 2 bernizatze-linea, Tandem 3 bernizatze-linea Sprint litografia (bernizaren aplikazio fasea)	06 01 08 01 A	Oxidazio termiko birsortzailea (OTR 2).	10	0,8	Sistematikoa
23	001000489-23	L7 M3 litografia tinten aplikazioa	06 04 12 03 C	-	9	0,3	Sistematikoa
24	001000489-24	L8 Labe-kola, M3 litografia lehortzea	06 04 12 03 C	-	9	0,3	Sistematikoa
25	001000489-25	B11 Tandem 4 bernizatze-linea	06 01 08 01 A	Erraustegia	10	0,5	Sistematikoa
26	001000489-26	B12 Labe-kola, Tandem 3 bernizatze-linea lehortzea	06 01 08 01 A	-	10	0,39	Sistematikoa
27	001000489-27	B13 Labe-kola, Tandem 4 bernizatze-linea lehortzea	06 01 08 01 A	-	10	0,3	Sistematikoa
28	001000489-28	L11 Labe-kola, M4 litografia-linea lehortzea (bernizatze fasea lehortzea)	06 01 08 01 A	-	8	0,39	Sistematikoa

Gainera, emisio lausoak sortzen dira gainazal metalikoen litografia- eta estaldura-lanetan, haietan disolbatzaileak erabiltzen direnean.

Betetzekoa izango da Aireari buruzko baldintza orokorretako gasak biltzeko eta husteko sistemen atala.

– Emisioen Muga Baliok (EMB) eta Atmosferaren Zaintza Programa:

Lantegia ustiatzean, bermatu beharko da atmosferara egingo diren emisioek ez dituztela gaindituko aparatu honetan jasotako emisioetarako ezarritako muga-balioak.

Instalazioa ustiatzean atmosferara egingo diren emisioek ez dituzte emisioen muga-balio hauek gaindituko. Emisioen kontrolak jarraian adierazitako metodoen eta maiztasunaren arabera egingo dira:

Foku-zenbakia	Emisio-fokuaren izena	Kutsatzaileak	Emisioen muga-balioa 2024-12-9 arte	Emisioen muga-balioa 2024-12-9tik aurrera*	Metodoak	Kontrolen maiztasuna 2024-12-9tik aurrera*
1	B1 B3 (lehen M3) eta B5 (lehen M5) bernizatze-lineak M2 eta M4 litografia-lineak (bernizatze faseak lehortzea)	NOx	100 ppm	130 mg/Nm ³	EN 14792	1. urtea ⁽⁴⁾
		CO	120 ppm	150 mg/Nm ³ ⁽¹⁾	EN 15058	1. urtea ⁽⁴⁾
		Gutzizko konposatu organiko lurrunkorrak (GKOL)	20 mg C/Nm ³	20 mg C/Nm ³	EN12619	1. urtea ⁽⁴⁾
2	B2 B4 bernizatze-linea (lehen M4)	NOx	100 ppm	130 mg/Nm ³	EN 14792	1. urtea ⁽⁴⁾
		CO	120 ppm	150 mg/Nm ³ ⁽¹⁾	EN 15058	1. urtea ⁽⁴⁾
		Gutzizko konposatu organiko lurrunkorrak (GKOL)	50 mg C/Nm ³	20 mg C/Nm ³	EN 12619	1. urtea ⁽⁴⁾
3	B3 Labe-kola, B4 bernizatze-linea lehortzea (lehen M4)	NOx	300 ppm	615 mg/Nm ³ ⁽²⁾	Honen arabera: JT-02 ⁽³⁾	3 urte
		CO	500 ppm	625 mg/Nm ³ ⁽²⁾		3 urte
		Gutzizko konposatu organiko lurrunkorrak (GKOL)	150 mg C/Nm ³	20 mg C/Nm ³	EN 12619	3. urtea ⁽⁵⁾
4	B3' Labe-kola, B5 bernizatze-linea lehortzea (lehen M5)	NOx	300 ppm	615 mg/Nm ³ ⁽²⁾	Honen arabera: JT-02 ⁽³⁾	3 urte
		CO	500 ppm	625 mg/Nm ³ ⁽²⁾		3 urte
		Gutzizko konposatu organiko lurrunkorrak (GKOL)	150 mg C/Nm ³	20 mg C/Nm ³	EN 12619	3. urtea ⁽⁵⁾
5	B4 Labe-kola, B3 bernizatze-linea lehortzea (lehen M3)	NOx	300 ppm	615 mg/Nm ³ ⁽²⁾	Honen arabera: JT-02 ⁽³⁾	3 urte
		CO	500 ppm	625 mg/Nm ³ ⁽²⁾		3 urte
		Gutzizko konposatu organiko lurrunkorrak (GKOL)	150 mg C/Nm ³	20 mg C/Nm ³	EN12619	3 urte ⁽⁵⁾
6	B5 Labe-kola, Sprint inprimagailuaren litografia lehortzea (bernizatze faseak lehortzea)	NOx	300 ppm	615 mg/Nm ³ ⁽²⁾	Honen arabera: JT-02 ⁽³⁾	3 urte
		CO	500 ppm	625 mg/Nm ³ ⁽²⁾		3 urte
		Gutzizko konposatu organiko lurrunkorrak (GKOL)	150 mg C/Nm ³	20 mg C/Nm ³	EN12619	3 urte ⁽⁵⁾
7	B6 Labe-kola, Tandem 2 bernizatze-linea lehortzea	NOx	300 ppm	615 mg/Nm ³ ⁽²⁾	Honen arabera: JT-02 ⁽³⁾	3 urte
		CO	500 ppm	625 mg/Nm ³ ⁽²⁾		3 urte
		Gutzizko konposatu organiko lurrunkorrak (GKOL)	150 mg C/Nm ³	20 mg C/Nm ³	EN 12619	3 urte
8	L1 Tintaren ezarpena M2 litografia-linean	Gutzizko konposatu organiko lurrunkorrak (GKOL)	75 mg C/Nm ³	20 mg C/Nm ³	EN 12619	3 urte ⁽⁵⁾
19	B7 Tandem 1 bernizatze-linea	NOx	100 ppm	130 mg/Nm ³	EN 14792	1. urtea ⁽⁴⁾
		CO	120 ppm	150 mg/Nm ³ ⁽¹⁾	EN 15058	1. urtea ⁽⁴⁾
		Gutzizko konposatu organiko lurrunkorrak (GKOL)	20 mg C/Nm ³	20 mg C/Nm ³	EN12619	1. urtea ⁽⁴⁾

2025eko urtarrilaren 22a, asteazkena

Foku-zenbakia	Emisio-fokuaren izena	Kutsatzaileak	Emisioen muga-balioa 2024-12-9 arte	Emisioen muga-balioa 2024-12-9tik aurrera*	Metodoak	Kontrolen maiztasuna 2024-12-9tik aurrera*
20	B8 Labe-kola, Tandem 1 bernizatze-linea lehortzea	NOx	300 ppm	615 mg/Nm ³ (2)	Honen arabera: JT-02 ⁽³⁾	3 urte
		CO	500 ppm	625 mg/Nm ³ (2)	Honen arabera: JT-02 ⁽³⁾	3 urte
		Gutzizko konposatu organiko lurrunkorrak (GKOL)	150 mg C/Nm ³	20 mg C/Nm ³	EN 12619	3 urte (5)
21	B9 Labe-kola, M2 litografia-linea lehortzea (bernizatze fasea lehortzea)	NOx	300 ppm	615 mg/Nm ³ (2)	Honen arabera: JT-02 ⁽³⁾	3 urte
		CO	500 ppm	625 mg/Nm ³ (2)	Honen arabera: JT-02 ⁽³⁾	3 urte
		Gutzizko konposatu organiko lurrunkorrak (GKOL)	150 mg C/Nm ³	20 mg C/Nm ³	EN 12619	3 urte (5)
22	B10 Tandem 2 bernizatze-linea, Tandem 3 bernizatze-linea Sprint litografia (bernizaren aplikazio fasea)	NOx	100 ppm	130 mg/Nm ³	EN 14792	1. urtea (4)
		CO	120 ppm	150 mg/Nm ³ (1)	EN 15058	1. urtea (4)
		Gutzizko konposatu organiko lurrunkorrak (GKOL)	20 mg C/Nm ³	20 mg C/Nm ³	EN12619	1. urtea (4)
23	L7 M3 litografia tinten aplikazioa	Gutzizko konposatu organiko lurrunkorrak (GKOL)	75 mg C/Nm ³	20 mg C/Nm ³	EN12619	3 urte (5)
24	L8 Labe-kola, M3 litografia lehortzea	NOx		615 mg/Nm ³ (2)	Honen arabera: JT-02 ⁽³⁾	3 urte
		CO		625 mg/Nm ³ (2)	Honen arabera: JT-02 ⁽³⁾	3 urte
		Gutzizko konposatu organiko lurrunkorrak (GKOL)	50 mg C/Nm ³	20 mg C/Nm ³	EN 12619	3 urte (5)
25	B11 Tandem 4 bernizatze-linea	NOx	130 mg/Nm ³	130 mg/Nm ³	EN 14792	1. urtea (4)
		CO	150 mg/Nm ³	150 mg/Nm ³ (1)	EN 15058	1. urtea (4)
		Gutzizko konposatu organiko lurrunkorrak (GKOL)	20 mg C/Nm ³	20 mgC/Nm ³	EN12619	1. urtea (5)
26	B12 Labe-kola, Tandem 3 bernizatze-linea lehortzea	NOx	615 mg/Nm ³ (2)	615 mg/Nm ³ (2)	Honen arabera: JT-02 ⁽³⁾	3 urte
		CO	625 mg/Nm ³ (2)	625 mg/Nm ³ (2)	Honen arabera: JT-02 ⁽³⁾	3 urte
		Gutzizko konposatu organiko lurrunkorrak (GKOL)	20 mg C/Nm ³	20 mg C/Nm ³	EN 12619	3 urte (5)
27	B13 Labe-kola, Tandem 4 bernizatze-linea lehortzea	NOx	615 mg/Nm ³ (2)	615 mg/Nm ³ (2)	Honen arabera: JT-02 ⁽³⁾	3 urte
		CO	625 mg/Nm ³ (2)	625 mg/Nm ³ (2)	Honen arabera: JT-02 ⁽³⁾	3 urte
		Gutzizko konposatu organiko lurrunkorrak (GKOL)	20 mgC/Nm ³	20 mgC/Nm ³	EN 12619	3 urte (5)

Foku-zenbakia	Emisio-fokuaren izena	Kutsatzaileak	Emisioen muga-balioa 2024-12-9 arte	Emisioen muga-balioa 2024-12-9tik aurrera*	Metodoak	Kontrolen maiztasuna 2024-12-9tik aurrera*
28	L11 Labe-kola, M4 litografia-linea lehortzea (bernizatze fasea lehortzea)	NOx	615 mg/Nm ³ (2)	615 mg/Nm ³ (2)	Honen arabera: JT-02 ⁽³⁾	3 urte
		CO	625 mg/Nm ³ (2)	625 mg/Nm ³ (2)	Honen arabera: JT-02 ⁽³⁾	3 urte
		Guztizko konposatu organiko lurrunkorrek (GKOL)	20 mg C/Nm ³	20 mg C/Nm ³	EN 12619	3 urte (5)

Emisio-mugak, baldintza hauetan: T=273 K, P= 101,3 KPa eta gas lehorra.

(1) Gutxi gorabeherako emisio-maila (batez bestekoa laginketa-aldian).

(2) Emisioek ez dituzte gaitzitu atmosfera kutsatzeko oinarrizko araudian, 34/2007 Legean eta hori garatzen duen araudian aplikatzekoak diren emisioen muga-balioak.

(3) IT-02aren arabera dagokion metodoa: Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantzako sailburuaren 2012ko uztailaren 11ko Aginduaren emisioen kontrolak; agindu horren bidez, jarraibide teknikoak zehaztu ziren abenduaren 27ko 278/2011 Dekretua garatzeko (Atmosfera kutsa dezaketan jarduerak garatzen dituzten instalazioak arautzen ditu dekretu horrek).

(4) GKOL karga 0,1 kg/h-tik beherakoa izango balitz edo GKOL karga egonkor ez-murriztua 0,3 kg/h-tik beherakoa izango balitz, monitorizazio-maiztasuna hiru urtean behin murriztu liteke.

(5) GKOL emisioak 0,3 kg C/h-tik gorakoak badira edo ezegonkorrek badira, urtean behin handituko da GKOL kontrolen maiztasuna.

*«Indarrekotzat» joko dira kontrolen «maiztasuna» zutabearen adierazitako urteak baino lehenago egiten diren arauko ILE emisioen kontrolak.

Emisio-balioak betetzen diren ebaluatzeko, abenduaren 28ko 278/2011 Dekretuaren 9. artikulua ezartzen duena beteko da.

Kasu guztietan GKOL emisioei eta hondakin-gasen tratamendu termikotik datozen NO_x emisioei dagokienez, emisioen muga-balioak betetzen direla iritziko da, baldin eta laginketa-aldiko batezbestekoak ez baditu gaitzitzen emisioen muga-balioak. Ondorio horietarako, laginketa-aldiko batezbestekoa honela kalkulatu da: gutxienez 30 minutuko ondoko ondoko hiru neurketaren batezbestekoa, neurketa bakoitzari baimen honetan zehaztutako metodoari dagokion konfiantza-tartea kenduta, edo, horrelakorik ez badago, jarraian zehaztutakoak.

– KOL: emisioen muga-balioaren % 30.

– CO: neurketa-metodoan ezarritakoaren arabera.

– NO_x: neurketa-metodoan ezarritakoaren arabera.

– Konposatu organiko lurrunkorren (disolbatzaileak) emisioen muga-balioak.

Instalazioak urtarrilaren 31ko 117/2003 Errege Dekretuaren II. eranskinen 8. jardura garatzen du, eta eranskin horretan adierazitako atalasea gaitzitzen duen disolbatzaileen urteko kontsumoak ditu. Halaber, erregistratuta dago konposatu organiko lurrunkorren emisioak sortzen dituzten instalazioei buruzko urtarrilaren 8ko 1/2013 Dekretuko konposatu organiko lurrunkorren emisioak sortzen dituzten instalazioen erregistroan, II. eranskinen emisioen muga-balioak betetzeko aukerarekin.

Ondorioz, Litografia Alavesa SLUK emisioen muga-balio hauek bete behar ditu:

Urtarrilaren 31ko 117/2003 Errege Dekretuaren II. eranskineko jarduera		Disolbatzaileen kontsumoa	Emisioen muga-balioak hondar-gasetan (mg C/Nm ³) ⁽²⁾	Emisio lausoen muga-balioa ⁽²⁾
8. ⁽¹⁾	Beste estaldura mota batzuk: metala, plastikoa, zuntza, ehunak, filmak eta papera estaltzea barne (>5).	5-15 t/urte	100	E/A
		> 15 t/urte	50/75 ⁽³⁾	disolbatzaileen sarreraren % 20.

⁽¹⁾ Urtarrilaren 31ko 117/2003 Errege Dekretuaren II. eranskineko 8. jarduera bat dator errege-dekretu horren I. eranskineko 2.b) jarduerarekin eta Atmosfera Kutsa dezaketen Jardueren Katalogoko 06080101 kodeko jarduerarekin: metalezko xaflen estaldura.

⁽²⁾ Taula honetan, metalak gainestaltzeko edo bernizatze jarduerarako 117/2003 Errege Dekretuaren arabera aplikatu beharreko muga-balioak aurkezten dira. Hala ere, 2024ko abenduaren 9tik, instalazioaren fokuetako GKOL emisioek ez dituzte gaudituko emisioen muga-balioen taulan ezarritako muga-balioak.

⁽³⁾ Lehenengo emisioen muga-balioa lehortze-jarduerari aplikatzen zaie, eta bigarrena, berriz, estaldura-jarduerari.

Disolbatzaileen sarrera eta emisio lausoak kalkulatzeko, urtarrilaren 31ko 117/2003 Errege Dekretuaren IV. eranskinari jarraituko zaio.

06080101 jarduerari loturiko instalazioak martxan jartzeko eta gelditzeko faseetan beharrezkoa den arreta jarri beharko dugu emisioak ahalik eta gehien gutxitzeko.

Hauek dira metalezko ontzien inprimaketatik eta gainestaltzetik datozen konposatu organiko lurrunkorren emisio iheskorretarako teknika erabilgarri onenei lotutako emisio-mailak (litografiari eta bernizatzeari aplikatzen zaizkie, 2024ko abenduaren 9tik aurrera):

Estaldura- eta inprimaketa-jarduera	Emisioen muga-balioak (urteko batezbestekoa)
Konposatu organiko lurrunkorren emisio iheskorak, disolbatzaile-masaren balantzearen arabera kalkulatuak	Disolbatzaileen % 12ko sarrera

Disolbatzaile-sarreraren eta konposatu organiko lurrunkorren emisio iheskorren kalkuluak 2010/75/EB Zuzentarauaren VII. eranskineko 7. zatiko 2. puntuan adierazitakoak dira.

– Atmosferara egindako emisioak kontrolatzea.

AIREA – BALDINTZA OROKORRAK atalean izen hori duen apartatua beteko da, eta apartatu horretako fokuen taulan ezarritako baldintzak kontuan hartuko dira.

Ebazpen hau jakinarazi ondoren bidali beharreko lehen Ingurumena Zaintzeko Programan, Litografia Alavesa SLUK indarrean dauden emisio-kontrolak jasotzen dituzten ILE txostenak bildu beharko ditu, eta, beharrezkoa izanez gero, unitateak eraldatuz egiaztatuko du betetzen direla 2024ko abenduaren 9tik aurrera aplikatu beharreko emisioen muga-balioak.

Aireari buruzko baldintza orokorretan jasotako «Disolbatzaileak erabiltzeak eragindako konposatu organiko lurrunkorren emisioen kontrola» atala aplikatuko da. Dokumentuetako bat —hain justu, urtarrilaren 8ko 1/2013 Dekretuaren 9. artikularen 1.b) apartatukoa— instalazioko disolbatzaileen sarreraren eta irteeren disolbatzaile-masaren balantzearekin ordeztuko da, 2010/75/EB Zuzentarauaren VII. eranskinaren 7. zatiaren 2. puntuan aurreikusitakoaren arabera.

Irteera-gasen tratamendu termikorako, errekuntza-ganberako tenperaturaren neurketa jarraituak egiten dira. Neurketa hori alarma-sistema batekin konbinatzen da, zeinak informatu egiten baitu tenperatura tarte optimoan sartzen ez denean.

Litografía Alavesa SLUK ziurtatu beharko du kalibratuta eta funtzionamendu onean mantenduko dituela errekuntza-ganberetako tenperatura-neurgailuak eta alarma-sistemak, arazketa-sistema behar bezala funtzionatzen ari dela bermatzeko, betiere lotutako linea(k) martxan egonez gero.

Instalazioen titularrak urteko funtzionamendu-txosten bat bidali beharko du, laburbiltzen dituen sistema hori mantentzearen inguruan izandako gorabeherak eta egindako ekintzak.

Konposatu organiko lurrunkorren guztizko emisioak eta emisio iheskorak monitorizatu egin beharko dira; horretarako, gutxienez urtean behin, instalazioko disolbatzaileen sarrera eta irteeren disolbatzaile-masaren balantzea egingo da, 2010/75/EB Zuzentarauaren VII. eranskinaren 7. zatiaren 2. puntuan aurreikusitakoaren arabera. Orobat, ahalik eta gehien murriztu behar da disolbatzaile-masaren balantzeari buruzko datuen ziurgabetasuna, teknika hauek erabiliz:

- Disolbatzaile egokien sarrera eta irteera guztiak identifikatzea eta kuantifikatzea, lotutako ziurgabetasuna barne.

- Disolbatzaileak monitorizatzeko sistema bat abian jartzea.

- Disolbatzaile-masaren balantzeari buruzko datuen ziurgabetasunean eragina izan dezaketen aldaketak monitorizatzea.

Jardueraren kontrolean sortutako dokumentazioa ingurumen-organismoari igorriko zaio, Ingurumena Zaintzeko Programa – Baldintza Orokorrak atalean adierazitakoaren arabera.

- Usainei buruzko baldintzak.

Sustatzaileak usainak kudeatzeko plan bat izan beharko du, elementu hauek jasoko dituen:

- Neurriak eta epeak jasoko dituen protokoloa.

- Usainekin lotuta identifikatutako gorabeheren aurrean jarduteko protokoloa (salaketen aurrean, adibidez).

- Usainak prebenitzeko eta murrizteko programa bat, horien iturria edo iturriak detektatzeko, horien ekarpenak deskribatzeko eta prebentzio- edo murrizketa-neurriak abian jartzeko diseinatua.

Urtero, usainak kudeatzeko planaren jarraipen-txostena emango da, Ingurumena Zaintzeko Programaren baldintza orokorretan eta baldintza partikularretan ezarritako entrega-baldintzei jarraituz.

Ingurunean usainak direla-eta kexarik jasoz gero, Litografía Alavesa SLUK erregistratu egin beharko ditu, eta barnean hartuko ditu hartzaileei buruzko datuak eta endredoen ezaugarriak (noiz eta non gertatzen diren, intentsitatea eta deskribapena...), eta, horrekin batera, instalazioan gauzaturiko jarduerak eta erabilitako substantziak jakinaraziko ditu (usain horiek eragin ahal izan dituztenak).

Urtero, ingurumena zaintzeko programaren baldintza orokorretan eta baldintza partikularretan ezarritako entrega-baldintzei jarraikiz gauzatutako kexen eta jardueren erregistro-txostena emango da.

ATALA: ISURIAK – BALDINTZA PARTIKULARRAK

HONDAKIN-URAK ISURTZEKO BALDINTZA PARTIKULARRAK

- Isurketen sailkapena, jatorria, ingurune hartzailea eta kokapena.

- Isuria sortzen duen jarduera mota nagusia: Metalen tratamendua eta gainestaltzea (Litografia).

- Jarduera-taldea: 16 Gainazalen tratamendua
- Mota edo EJSN taldea: 3-16-28.51 (Metalen tratamendua eta estaldura).

Isurketa-puntua	Hondakin-uren mota	Isurketaren jatorria	Ingurune hartzailea	UTM koordenatuak (ETRS 89) isurketa-puntuarena
1	Euri-ura eta garbitzeko ura	Bulegoak eta komunak kanpoaldekoak	Oiongo Udaleko kolektore nagusia	X 546582 Y 4705458
2	Euri-ura eta garbitzeko ura	Euri-urak eta komunekoak	Oiongo Udaleko kolektore nagusia	X 546556 Y 4705507
3	Euri-ura eta garbitzeko ura	Euri-urak eta komunekoak	Oiongo Udaleko kolektore nagusia	X 546529 Y 4705561

Prozesuko urak hondakin gisa tratatzen dira.

Ez dago baimenduta ubide publikora hondakin-urik isurtzea.

AZPIATALA: KOLEKTORERA ISURTZEA – BALDINTZA PARTIKULARRAK

HONDAKIN-URAK SANEAMENDU-KOLEKTORERA ISURTZEKO BALDINTZA PARTIKULARRAK.

– Gehieneko isurketa-emariak eta bolumenak.

– 1., 2. eta 3. isurketak.

Puntako orduko emaria	1,5 m ³ /h
Eguneko gehieneko bolumena	37,5 m ³ /egun
Gehieneko bolumena urtean:	5.500 m ³ /urte

Urteko 5.500 m³ horietatik, 1.750 m³/urte nabeak egokitzeko adiabatikoetan erabilitako uretatik datoz.

– Isurketen muga-balioak.

1., 2. eta 3. isurketak.

Isurketen muga-balioak Oiongo Udalak ezarritakoak izango dira.

Ezin izango da diluzio-teknikarik erabili isurien muga-balioak lortzeko.

– Arazteko eta ezabatzeko instalazioak.

Kontrolerako kutxeta bat jarriko da baimendutako hondakin-ur motarentzat; kutxeta horiek isurien lagin esanguratsuak lortzeko beharrezko diren ezaugarriak izango dituzte. Kutxatila zuzeneko sarbidea dagoen leku batean kokatuko da, behar denean ikuskatu ahal izateko.

– Isuritako uraren kalitatea kontrolatzea.

1., 2. eta 3. isurketak.

Oiongo Udalak ezarriko ditu neurketa-parametroak, kontrolen maiztasuna eta kontrol mota.

Isurien kontrolen emaitzak ingurumen-organoari bidaliko zaizkio, ingurumen-baimen bateratu honetako Ingurumena Zaintzeko Programa – Baldintza Orokorrak eta Ingurumena Zaintzeko Programa – Baldintza Partikularrak ataletan jasotako epeetan eta baldintzetan.

ATALA: HONDAKINAK SORTZEA – BALDINTZA PARTIKULARRAK

INSTALAZIOAN SORTUTAKO HONDAKINAK EGOKI KUDEATZEN DIRELA BERMATZEKO BALDINTZAK PARTIKULARRAK

– Hondakinak sortzea – Baldintza Partikularren aplikagarritasuna.

Hondakinak sortzea – Baldintza Orokorrak ataleko apartatu guztiak aplikatuko dira, honako hauek izan ezik:

– Hondakinak sortzea – Baldintza Orokorrak ataleko «Baldintza Espezifikoak» apartatua apartatu horretako taulan gehitu diren hondakinei bakarrik aplikatuko zaie.

Taula honetan ageri dira sustatzaileak aitortutako hondakin arriskutsuak (izartxoarekin eta EHZ kodearekin adierazita) eta arriskugabeak.

EHZ	Hondakinaren deskribapena	Ezaugarriak Arriskugarritasuna	Kudeaketa-bidea	Biltegitzeko modua	Sortze-prozesua	Ekoizpen zenbatetsia (kg/urte)
140603*	Disolbatzailea	H3/5	R13	SEH	Zerbitzu Orokorrak	10.000
080312*	Tintak	H3/5	R13	SEH	Zerbitzu Orokorrak	4.000
150202*	Trapu kutsatuak	H5	D15	Edukiontzia	Zerbitzu Orokorrak	10.000
150202	Kautxuzko mantelina	H5	D15	Paleta	Zerbitzu Orokorrak	6.130
110107*	Oinarrizko disoluzioa	H8	R13	SEH	Zerbitzu Orokorrak	14.213
130110*	Olio erabiliak	H5/6	R13	Bidoia	Zerbitzu Orokorrak	**
200121*	Fluoreszenteak	H14	R13	Kaxa	Zerbitzu Orokorrak	221
160506*	Azido agortuak	H5/8	R14	Txanbila	Zerbitzu Orokorrak	292
160213*	Ekipamendu elektrikoak	H6/14	R4	Eremu identifikatua	Zerbitzu Orokorrak	1.128
150110*	Metalezko ontzi kutsatuak	H14	R13	Eremu identifikatua	Zerbitzu Orokorrak	20.346
150110*	Plastikozko ontzi kutsatuak	H14	R13	Big-bagak	Zerbitzu Orokorrak	1.000
080111*	Berniza	H5	R13	SEH	Zerbitzu Orokorrak	39.056
150110*	Kutsatutako plastikozko SEHak	H14	R3	Soltean jasota identifikatutako eremuan	Zerbitzu Orokorrak	101.361
090102*	Errebelatzailea	H18	R13	SEH	Zerbitzu Orokorrak	3.894
070301*	Garbitzeko eta bustitzeko urak	H3/5	D15	SEH	Makinen eta ekipoen garbiketa	36.928
191204	Kautxu-hautsa			SEH	-	3.629
150101	Papera eta kartoia			Edukiontzia	Lehengai jasotzea eta produktu amaitua igortzea	79.557
19 12 02	Burdin metalak			Edukiontzia		80.000
19 12 02	Latorria			Paleta		800.000
19 12 03	Aluminioa			Paleta		40.000
150103	Zura			Edukiontzia	Lehengai jasotzea eta produktu amaitua igortzea	122.452

EHZ	Hondakinaren deskribapena	Ezaugarriak Arriskugarritasuna	Kudeaketa-bidea	Biltegitzeko modua	Sortze-prozesua	Ekoizpen zenbatetsia (kg/urte)
090199	Informatikako kontsumigarriak			Kaxa	Irudien aurreinprimaketa eta konposizioa edozein prozedura eta fotograaturen bitartez	
20 03 01	Etxeko zaborra			Edukiontzia		25.000
20 01 39	Plastikoa			Edukiontzia		25.000

** enpresa mantentzaileak erretiratua.

– Identifikazio-kodeak.

Hondakinaren ekoizleari dagozkion identifikazio-kode hauek ere erabiliko ditu titularrak bere jarduera garatzean:

– Hondakin arriskutsuen ekoizpena: 16-I-01-000000000085.

– Hondakin arriskugabeen ekoizpena: 16-I-01-000000000085.

ATALA: LURZORUA – BALDINTZA PARTIKULARRAK

LURZORUA ETA LURPEKO URAK BABESTEKO BALDINTZAK PARTIKULARRAK

Litografía Alavesa SLUK lurzorua babesteko behar diren neurriak hartu beharko ditu.

a) Edukiontzi sekundarioak jartzea beharrezkoa den lekuetan.

b) Substantzia kutsatzaileen isuriak gertatzen diren edo gerta daitezkeen lekuetan xurgaketa-ekipoak instalatzea.

c) Olioak eta beste substantziak utzitako zikinguneak garbitzea

ATALA: ZARATA – BALDINTZA PARTIKULARRAK

ZARATAREN INGURUKO BALDINTZA PARTIKULARRAK

– Zaratari buruzko baldintzak.

Ondorengo indize akustikoak gaindi ez daitezzen beharrezko neurri guztiak ezarriko dira:

Maila hauei egokitu behar zaie jarduera: etxebizitzan barrualdean entzungo den LAeq,60 segundo zarata-indizeak ezin izango du inoiz ere 40 dB(A) gainditu, 07:00ak eta 23:00ak bitartean, leihoak eta atearak itxita, ezta LAmaz indizeak 45 dB(A) ere.

Maila hauei egokitu behar zaie jarduera: etxebizitzan barrualdean entzungo den LAeq,60 segundo zarata-indizeak ezin izango du inoiz ere 30 dB(A) gainditu, 23:00ak eta 7:00ak bitartean, leiho eta atearak itxita, ezta LAmaz indizeak 35 dB(A) ere.

Jarduerak ez du apartatu honetako taulan adierazitakoa baino zarata handiagoa atera beharko, 4 metroko garaieran neurtuta (egoera berezietan izan ezik, horietan pantailatzeak saihesteko beharrezko den garaiera hartuko baita), industria-esparruaren kanpoaldeko itxituraren perimetro osoan.

Zarata-indizea	dB(A)
Ld	75
Le	75
Ln	65

Industria-esparruaren kanpoaldeko itxituren bete beharreko soinu-mailak.

Abian den instalazioak, 1. taulan finkatutako mugak betetzeaz gain, ez du eguneko inolako baliotan (LAeq,d, LAeq,e eta LAeq,n) apartatu honetako taulan adierazitako balioak baino 3 dB-tik gorako gehikuntzarik gaindituko.

Gainera, jardueraren gainerakotik bereizitako prozesuaren jardun modu bat baldin badago, jardun modu horri lotutako zarata-maila bat zehaztu beharko da (LAeq,Ti). Ti jardun modu horren iraupen-denbora izango da. Maila horrek ez ditu gaindituko apartatu honetako taulan 5 dB-tan finkatutako balioak.

– Zarataren kontrola.

Indize akustikoen ebaluazioak egin beharko dira hiru urtetik behin: Ld, Le, Ln ,LAeq,Ti eta LAeq,60 segundo.

ATALA: INGURUMENA ZAINTEKO PROGRAMA – BALDINTZA PARTIKULARRAK

INGURUMENA ZAINTEKO PROGRAMAREN BALDINTZA PARTIKULARRAK.

– Jardueraren adierazleak kontrolatzea.

Sustatzaileak jardueraren gaineko parametro-adierazle hauen jarraipena egingo du urtero, ingurumenean duten eragina aztertzeko, eta urtean urteko ingurumena zaintzeko programarekin batera aurkeztuko du.

Adierazlea	Unitatea
Lehengai-kontsumoa	Kg/1000 m ² // Kg // m ² // m ³
Energia-kontsumoa	Kwh/ kg
Hondakin-sorkuntza	Kg/1000 m ² // Kg
Industria-isurketaren parametro bereizgarriak	Neurtu behar den parametroaren arabera
Atmosferara egiten den emisioaren parametro bereizgarriak	Neurtu behar den parametroaren arabera
Ingurumen-xedeen kopurua, ez-adostasunak, prestakuntza-orduak eta abar	Unitatea // %
Hondakinen kudeaketa	Eurotan

ATALA: EZOHIKO EGOERAK – BALDINTZA PARTIKULARRAK

PREBENTZIO-NEURRIEI ETA EZOHIKO EGOERETAN FUNTZIONATZEKO BALDINTZEI BURUZKO BALDINTZA PARTIKULARRAK

– Jarduera etetea eta aurretiazko jarduketak.

Ezohiko egoerak – Baldintza Partikularrak atalean aipatzen den lurzoru kutsatuen gainean indarrean dagoen araudiaren arabera, 24.5 da jarduera-kodea.

– Funtzionamendu anomalorako prebentzio-neurriak eta jarduerak.

Instalazioen mantentze-lan prebentiboak.

Mantentze- eta monitorizazio-neurriak aplikatzeari dagokionez, ekipo kritikoen, bi oxidatzaile termiko birsortzaileen eta hiru erraustegien jarraipen espezifikoa egingo da.

Kubetak husteko eragiketak kontrolatzeko balio duen protokolo edo prozedura dokumentatu bat izango dute; eta saiatu behar dira efikaziari eragin diezaioketen isuriak tratamendu-instalaziora joan ez daitezen.

Inoiz ez dira pilatuko euri-uren jariatzearen ondorioz ibilgu publikoa kutsatzeko arriskua egon daitekeen guneetan.

Lanak egiteko eremuetan, hidrokarburoak xurgatzeko material espezifikoa eduki beharko da, istripuz isuri edo ihesik badago berehala erabiltzeko: biribilkiak, material pikortua eta abar.

ATALA: INGURUMEN-ERANTZUKIZUNA – BALDINTZA PARTIKULARRAK

INGURUMEN-ERANTZUKIZUNAREN INGURUKO BALDINTZA PARTIKULARRAK.

– Ingurumen-erantzukizuna.

Ingurumeneko finantza-bermeari buruzko baldintza orokorretan izen bera duen apartatua bete beharko da (Ingurumen Erantzukizuna – Baldintza Orokorrak).